


BIZKAITARRAI
BIZKAIERAZ
79n. ZENBAKIA
URRILLA
1984

Martín Pérez



**INDAUTXU'KO ELEIZEA TA ENPARANTZEA
(Bilbo'n)**

GARBITASUNA, GURE OSASUNA

GARBIKUZIA BTAR

Gauzarik ederrena ta politena da, edonon, garbitasuna.

Naiz notiñetan, naiz etxeetan, naiz ikastetxeetan, naiz idazgoetan, naiz kaleetan, gauzak garbi dagozanean, goraipean ederra zor jako toki orreri.

Etxe baten sarreran idazki au irakurri neban: "Garbitasunak notin bat urreratzen dauanean, loike-riak beste bat urrintzen dau".

Norbait jantzi barri bategaz ba'doa baiña aurpe-gia ta uleak nai ozkiak garbitu barik ba'daroaz, iñok ez dautso begiratzen.

Neska-mutillak ikastolara doazanean, gurasoai lenengo eskatzen jakena garbi bialtzea da.

Zergaitik?

Sarritan gure azala loi dagoalako gaiso asko etor-ten diralako be bai.

Gure narrua loi ba'dago, aize-zuloak garbi ez ba'daukaz izerdiaren bidez urteten daberen pozoiak barruan gelditzen dira eta kalte ikaragarriak dator-kuz.

BILBO'KO KALEAK

Baiña ez da nire gaurko guraria gorputzaren garbitasuna gogoratzea, Bilbo'ko kaleen garbitasun-arazoa da gaur artegatzen nauana.

Berrogei ta amalau urte dira Bilbo ezagutzen dodala eta sarritan entzun dot gure Bilbo garbia dala, baiña gaur ezin geinke esan ori. Oso tamalgarria izan arren, guzurra esan gura ez ba'dogu, loa dala esan bear.

Goazen Enparantza Nagusira, Gure Diego'ren Enparantza'ra. Bertan daukagu Bilbo'ko kalerik ede-

rrenen asierea. An ikusiko doguz egunero ingi-pilloak lurrean, eta gauza zatarragoak be bai.

Goazen Enparantza BARRI-ra, eta emen be beste ainbeste: Enparantza bazter bitan beintzat goizetik gabera mota guztietako ondakiñak egoten dira. Eta zelako atsa bertan! Andik igaro-bearra izaten dodanean zurrak zarratuta joan bear izaten dot! Eta ori emen, Bilbo erdi-erdian. Zer izango da uriaren albo-inguruetan?

NOK ERRUA?

Errua nok daukan?

Guztiok geiago edo gitxiago.

Intxiña ez dala irurogei urteko gizon batek, bere etxe-aurrean, eskutitz-azal batzuk zati-zati egin eta lurrera bota ebazan neure aurrean. Begira-begira geratu najakon eta bera be konturatu zala uste dot. Bilbo'ko Gotzain-Eleizearen aurrean izan zan ori.

Egun batzuk geroago, neskato batek, ia neure oiñetara bota eban azur bat ingi baten barruan. Bailen kalean izan zan au.

Eta jazoera bietan neurki bira egoan sastar-ontzia.

Bilbo'tar askok txinel bat bear dogu geure atzetik, eta ori gauza ona litzake lan-bakoai lana emoteko, baiña nok edo nondik ordaindu?

Agorrillaren 12'an erriko agintariak aterpe bat ipiñi eben udaletxearen aurrean, oso polita. Lagun bateri jokatu neutson aterpe ori ezetz zutunik egon jaiak amaitu arte. Eta jaiak asi baiño lenago apurto eben.

Garbiak izan gaitez, soiñean, jantzian, etxean, kalean,... geure onerako izango da.

ETXEBERRI'TAR I.

IKASI-IRAKATSI TA EZI

Gure ZER au irakurleen eskuetara eldu orduko ikasleak gogotsu ibilliko dira euren ikas-lanetan, lenengo egunetako nagikeria azpiratuta, baiña idazten nagoan une onetan Oñarri-Eziketa Orokorreko ikasleak, euren zorroak sorbalda-gaiñean dabezela eta opor-aldia amaitu ondoren, ikastegietara urreratzen dagoz.

Amabost bat egun-barru Erdi-Maillako ikasleak be urreratuko dira euren ikastegietara eta egun gitxi geroago goi-maillakoak be bai.

Eta jazokizun arrunt on?k ze^o-pentsau emoten dauku. Eziketa-lana baiño la ' gaitxagorik ete dago? Ez dot uste. Uan a' beti izan da gaitxa eta gure aldi nastau o 'etan iñoiz ba'•o gaitxago biurtu jaku. Nik !rrukia dautset gaurko irakasle zintzoai!

* * *

Eziketa-lanari beti izan dautsagun itzaltasuna gaur ia bildur biurtu jaku. Iñoz irakasleak eurak, asko beintzat, zelan ezita dagozan itaundu bearo genduke lenengo eta gero ezibidean zelako laguntzak edo errez-tasunerako bideak daukezan aztertu bearo genduke. Izan be eziketako jokabideak urterik urtera aldatzen dira eta ez dogu ikusten geroago ta obeak diranik.

Oraintxe laster dala diñoie urteteko eziketa-lege barri bat. Zelakoa izango ete dan. Aspaldi onetan entzuten da barregaia datort burura: Gurasoak ibillaldian euren umea aurrean burdixuan dabela eta batak bes-teari diñoitso: Ume gizajoa! Zenbat eziketa-lege barri ezagutuko ete dozuz ' Eta zelakoak!

* * *

Lan orretan elburu bi batez be aitatu bear doguz Jakingarriak esk`raUea euo ikastea eta gizartean bizitera sartzea, arlo bi oneitan Euskaldunak bere gai ta jokabide berezia dauala.

Lenengo arazoan iñoz entzun dogu Ikastetxe Nagusiko Irakasleak esanda esaldi au: Batxiller analfa-betora edo abedetubakora eldu gara eta berago ezin jausi izango gara.

Eta bigarreanean, gauza bearrezkoa benetan, gauzak bear dan lez esaten, bear dan lez entzuten, besteen eritxiak itzaltasunez begiratzen... eta olako jokabideak ikasleen barru-barrura sartzea.

* * *

Euskaltasunari bagagokioz, gaurko irakasle askok ete dakie zertan dagoan euskalduna izatea edo ardura ete dautse? Arazo au ikastola askotan argiago ikusiko da bear b?'da, baiña erri-eskoletan? Erdi-maillako ikastegietan ' Eta goi-maillan? Askok aurreratu dalakoan gagoz, baiña zori txarrez len.eskoletan erde-raz eta kanpoan "uskeraz egi'en zan berba, orain ostera eskola batzutan euskeraz eta kanpo guztietan erde-raz. Etorriko al dira aldi barriak!

* * *

Arazo aundi oneri begira irakasle gazteak baiezkor eta alai ikusten doguz, zarrak, ostera, bildurrez eta gogo gitxigaz.

Dana dala, arazoak arazo, aurrera egin bear da eta al danik ondoen jokaturten alegindu.

OLERTI-EGUNA

Gauzak eta pertsonak apurka egin oi dira izen aundiko. Baita Larrea'ko OLERTI-EGUNA be, aspaldiko urteetan ospatzen doguna.

Zer da olerkia, poesia? Itxasoaren aunditasuna; eguzkiaren urteiera; baratz loraz jantzia; W. Shakespeare'n trajedi bat; Uizardi'ren "Vegi-biotzetan"; Lauaxeta'ren "Bide Barriak"; edozein olerlantxo jator.

Olerkia gauza bikaiña dala be, ba-dira onela itanduten dabenak: "Ezer balio dau gero poesiak" Irek eta onek, egia da, ez ditu gozartzen olerkiaren ba'ruko euntanunak. Barazkiak onak dozuz, baiña ez dauz onartzen edozein urdaillek. Poesia gozartzeko be, ao egokia ta ortarako egiña bear.

Españar olerkari goren Alberti, urte askoz erbestetua, telebistak oraintsu oindiño, olerkiak zer balio dauan azaltzera beartu izan dabe. Zer erantzun? Berak ez daki, baiña berak gauza aundizat daukala poesia; bereri poz itzalak ekarri dau tosozala, eta bere erria jaso nairik ainbat poema idatzi ditula.

Yunduko errialde guztiak izan dabez poetak. Yunduko literaturarik ospetsuenak (Biblia lekuko dala) bertsoz emonak dira. Erri-askatzailleak Oabino Arana Goiri lekuko) maite izan dabe olerkia. Poesiak ba-dau, beraz, balioa. Illuna dala? Ba leiteke. Gizasemearen barrera, izatea ez ete da illuna? Ortik ateratako zerbait dozu olerkia, barruko izketa ixilgozotik kanpora ekarritakoa. Gizona ez da itxura bakarrik. Varne daroa beste zerbait, espirituaren indarra, ta orixe d! poesia, adimenaren eta biotzaren ezitia.

* * *

Uarrea'ko Olerti-Tiunak Ieste urtekoai jarraitu dautse. Egunak, alan be, izango dau aldakuntza txiki bat: Azaroaren 25 an, Kristo Erregearen egunean barik, aurreko igandean, azaroaren 18'an ospatuko dogu. Orrela erabagi genduan igaz. Urteotan, garai orretan, eta aurten 2x'an ain zuzen, Arana Goiri'ren omenez jaia egin oi da, eta urtero ona datozen batzuk

be arako egarria erakutsi eben; orixegaitik dozu aldakuntza ori.

Sariketarako lanak iru motakoak izango dira. I. Lirika saillekoak. II. Poema saila. III. Bertsolari-taiukoak. Uanak bialtzeko epea urrillaren 25'a. Ona Larra'ra bialdu, dakizuenez, Epai-maikoak: igaz irabazle izan zana, Eusebio Erkiaga, ta aurreko urtekoa. Sariak, betikoak. Bizkor, olerkariak! Erria olerkariak itxartu oi dabe-ta.

Omendu, nor? Il barri dan Aita Bonifazio Ataun. "Sabiaga" izenpean ainbat poema eder ondu euskuzan, bai "Zeruko Argia"-n eta bai Buenos Aires'ko "Boletín del Instituto Americano de Estudios Vascos"-ean.

Jaia, emaikak t'erdietan meza, sariak banatzea, saritu lanak irakurtea, poesiari buruzko alkar-izketa gozoa, eritxiak, bazkaria, kanta ta lagunarte beroa.

Eder-zaleok, emen igaro zeinkie egun ederra azaroaren 18'an. Ordurarte, biotzez.

AITA ONAINDIA

IXILPEA

Ixilpea zer da? Batek edo gitxik dakien eta ixilean euki bear dan egia. Ixilpe guztiak ez dira bardiñak. Dauken lanak, zeregiñak beartzen ditu batzuk ixilpea gordetzera. Adibidez: osagilleak, abogaduak, notarioak, farmazeutak eta abar.

Ixilpearen oiñarri zuzentasuna da. Ixilpea urratu, ausi dauanak osatu —bearra dau. Ausi bakarrik ezeze, jakiteko bideak ipiñi be ez. Gitxiago bear ez diran bideak ipiñi jakiteko. Adibidez: zemaiak agertu, ateostetik entzun, idazkiak irigi ta zabaldu, giltzpean dagoana arakatu. Iñori ez esateko ba'litz pekatu txikiagoa dagi, baiña pekatu dagi. Idazki bat baimenik barik zabaltzea pekatu astuna da garrantzirik ez dauala jakinda izan ezik.

Onetan goimaitasuna sarritan austen da gaur. Ez da gordetzen bear bezala ixilpea. Ortik gero eztabaidak, asarreak, gorrotoak, aierkundeak. Ixilpea gordeko ba'litz, zenbat eztabaida ta zuzengetasun kenduko litzakezan. Batasun aundiagoa, alkartasun aundiagoa, bake geiago, zorion geiago legoke gizartean.

Ixilpea gorde egizu. Ixilpea austeak kalte aundiak ekarri leikez. Ez ibilli ara ta orra txor-txor dana zabaltzen. Gauza zatarrak, iguingarria ekandu zital au.

GOIRIA

Lagun agurgarriok:

*Naiz eta gura izan, ezin izan dot leenago idatzi sendiaren oporretan beti lanperaturik nabillelako. Ia beti alderantziz izaten dala bada-
kit, baña etxeko andra izan (neskame) eta senide guztiakaz... Alan
gutziz ere, emen daukazue lan txiki ori euskera errezean.*

TREBETASUNA

Ez dot iñoiz aztuko Durangoko gizon jator eta langille ori, bere eskuakaz edozein gorostiren adarragaz, makil ikusgarri eta zoragarria egiten eban. Makil buru batzuk, baserritar edo etxeko andreaken buruagaz apainduta, beste batzuk, sugearen irudiagaz edo gaztelu zar eta ederragaz. Bere trebetasuna siñistu-eziña dirudi ikusten ez bada.

Gizona bera zintzotasunez beterik dago, lerdena gorputzez eta begirakunean gozotasuna ta artegatasuna nabaitzen jako. Ez da arritzekoa urduritasun ori, bere lan

trebea, beragaz ilko dala, ondo daki eta.

Orrelako ekintza ugari zan gure lurretan eta lenengo egilleak artzañak ziran. Euren lana egiteko, gauza garrantzitsuenak, astia eta gorostiak ziran.

Orain egurra lantzeko tresna asko dago eta asti gitxiagoz lan bikaña egiten da. Lan orreik izakera ba dauke baña berotasunik ez, berotasun ori, gizonaren eskuak bakarrik emoten dautsoe eta nik, gizon larritsu ori ikus-tean geiago esango neuke: Bere makil zoragarri bakoitzari biotz-zati bana emon dautsola.

EUSKEREAK MAITEMINDUTA

Gogamenera zatorkidaz
egunero maitia
ainbat zuri emon guraz
bizi dot nire bizia

oso gitxi emon dautzut
baña biotz-biotsez
onartzen badaustazu
betetzen nozu pozez

zuk niri emon daustasun
betirako zoriona
biotzez eskertzen dautzut
niretzat asko data

zure edertasunagaitik
neu aleginduko naz
gero ta geiago ikasten
eta poztuko zara

Nik zugaz ez dot nekerik
dana da poztasuna
egun zaitez nigaz beti
bakean eta gudan

orain askok saldu zaitu
naiz ta zu ama izaten
baña orrelako semerik
ez dau iñork beartzen

nik ez zaitut zu salduko
jaiotzez ez ezagutu arren
maitasuna emongo dautzut
il ordua eldu arte

zure berba ain gozoa
doñu orregaz egiten
sakonengan dot sartuta
BIZKAIER I batez be

P IUMIK

ARPIDETZEKO TXARTELA

ZER aldizkaria artu gura dot eta bialdu egidazue zuzenbide onetara:

..... tar
.....kalean (auzoan) zenbakian
..... errian, errialdean (probintzian)
Arpidetzea ordaintzeko diru-etxera (bankura) bialdu ordain-
txartela, an dauqadan zenbakidun diru-kontura.

ZABALDU DAGIGUN "ZER". Arpidedun bakoitxak billatu begi beste bat!

DOATSU EUSKALDUNAK

DAGONILLAK 19

Ezekiel Moreno Doatsua. Gotzaiña.

Alfaro'ko errian, orduan Tarazona'ko eleiz-barrutian jaio zan, 1848 urtean.

Amasei urtekin Agustindarren ordenean sartu eta Filipinas'era joan zan, eta bere Meza-barría Manila'n emon eban.

Bere abade lanetako lenengo 16 urteak, Filipinas'en bertan emon ebazan, arrigarritzko arriskuak igaroz.

Gero Monteagudo'ko Prior izendatu eben, baiña andik lasterrera Kolonbia'ra bialdu eben, Pasto'ko gotzain legez. Lurralde onetan be, lan gogorak eta latzak egin ondoren, Erroma'ra joan zan, Aita Santuari gotzain-karga kentzeko eskatzera. Baiña Aita Santua León XIII garrenak au erantzun eutson: "Zoaz osterá be zeure eleiz-barrutira. Eleizak olakoxe gotzainak bear ditu".

Monteagudo'n il zan 1906 urtean.

DAGONILLAK 20

Zudaire'ko Esteban eta Maiorga'ko Joan, martiri doatsuak.

Lenengoa Goi-Naparroa'n jaioa zan, Zudaire'ko errian; bigarrena, barriz, Be-Naparroa'ko Donibane Garazi'n.

Biak Loiola'ko Inazio'ren Xesusen Uagundian bizi ziran.

Ameriketa'n mixiolari izateko asmoz, Brasil'era joateko Lisboa'n itsasoratu ziran, baiña itsasoko bidean protestante piraten eskuetan jausi ziran.

Itxasontziko kapitaiak gure martiriei, euren buruak zaintzeko piraten aurka ezpatak artzeko eskatu eutsen; baiña gure mixiolariak erantzun eutsoen: "Gu ez gara soldaduak, mixiolariak baiño, eta gurago dogu geure odola emon, besteena isuri baiño".

Ez gara Brasil'era elduko, baiña zeruan mixiolari izatera goaz.

IRAILLAK 30

Urte onetako irailaren 30'ean Erroma'n DOATSUEN maillara jaso dabe Bilbotar emakume ezkondu bat, zazpi seme-alaben ama: Ibarra'tar Rafaela. Ez dira ezkondu asko altaretan ikusten.

Deustu'n jaio zan 1853 urtean. Gaztetan ez eban santutasun asmo andirik izan... 18 urte zituela Jose Vilallonga, Katalunyako industrilari ospetsuarekin ezkondu zan.

Ezkondu ondoren etxeko-andra onen ardurarik andiena —bere sendiko lanen ondoren— au izan zan: baserrietatik Bilbo'ra aberatsen etxeetara zerbitzera etorten ziran neska gazteai laguntza emotea.

Orretarako, Begoña ondoan, "Los Angeles Custodios" izeneko etxe eder eta zabala sortu eban. An zaintzen ebazan, ama baten maitasunez, jana, lotokia baita lana aurkituz, etxe aretara joan nai eben neska gazteak.

45 urtekin alargundu zan, eta bere seme-alabai bizimodua emon ondoren, berak sortutako lekaimeen KONGREGAZINOAN sartu nai izan ebenean, urdailleko minbiziak jota, 1900 urtean il zan.

Eriotzako orduan berak sortutako lekaimeai esan eutsen:

Nire eriotzagatik ez zaiteze biotz-illundu. Zerutik lurrera kate bat egingo dogu, Jaungoikoaren ondotik nik zuei laguntzeko".

GOIKOETXEA'TAR INAKI

AUPA GIZONA!

Maiz entzun dozu noski, eusko-
ezkertiarren ezpafiñetatik bereiziki,
onako abesti pizkorgarri auxe:

“Aupa gizona, jeiki mutil,
azar emazte ta neskatil!
Borrokarako dei egiñaz
irrintzi bat dabil!
Euskalerrria diagu zai,
presoak eta illak ere bai!
abertzale izan ezkeru gaur
gauden danok anai.”

Baita're, entzuna izango dozu abes-
ti ori Montzon'ena dala. Nik ala
neban beintzat entzuna.

Ez ba. Abesti ori Urruzola'tar
Estanis “Uxola” euskal idazle bikain
eta abertzale zintzoarena da.

Adiskide batek ori esan eustan
bezain laister idatzi neutsan Uxola'ri,
eta baietz, abesti ori berea daula esa-
naz erantzun daust gaur bertan Uxo-
la'k.

“Beste askotan bezela espexetik
atera-berria nintzan, —diño Uxola'k—
eta Balentzi'ko lurretaruntz joan nin-
tzan atsedean billa: Burriana'ra.

“Erri ortan, Balentzi'n bezela, “fa-
llak” egin oi zituzten San Joseetan.
Egun batean, fallak zirala-ta erriko
banda munizipalak estrenatu zuan
kalejirak arritu ninduan. Bazirudian
euskal doiñu bat jotzen ari zala.
Berealaxe, jotzaille zan adiskide bate-
ri partitura eskatu nion. Baita onek
eman ere. Izkiz aldatuta, doiñu ura
Euskalerrrian sartu zitekeala iruditu
zitzaidan, eta berealaxe, zuk Mont-
zon'ena dala diozun abesti orren itzak
jarri nizkon.

“Abesti berari jarri dioten musi-
ka, ez da Burriana'koa, Burriana'koa,
estribilloarena da: “Borrokari, luza
zaidak eskua” itzekin asten dana.
Bestea, zuk ondo dakizun bezela,
Tolosa'ko Gabonetako zortzikoarena
da, “Aupa gizona”tik asita “Gauden
danok anai” arteraiño, naiz zortziko
tolosarra pixka bat aldaturik eta rit-
moz bestelaturik agertu abesti ortan.

Nik, nerekin ekarri nuan Burriana'-
ko partitura Tolosa'ra. Baita partitu-
ra arentzat idatzi nuan olerkia ere: iru
edo lau aapaldikoa.

“Tolosa'n egun batean, Paris'tik
etorritako bat aurkeztu zidaten.
Paris'ko Euskal Abesbatzan abesten
zuala esan zidan berak. Nik, erbeste-
tik ekarri berri nuan partitura aren
albistea eman nionean, partitura ura

eskatu zidan berak. Eta orrelaxe
eman nion.

“Lau urte geroago ikusi nuan
Parisko abeslari ura: “Zer egin dik
nere partitura arek”?, galdetu nion.
Eta berak erantzun: “Aurrera zijoak.
Urteaga musikariaren eskuetan
zegok”.

“Urte batzuetan azturik euki nuan
Burriana'ko doiñu aren arazoa.
Baiña, bein, uste gabe, ara nun entzu-
ten dedan irratiz! “Au nerea dek”! oi
egin nuan, naiz nik “atzar” en ordez
“atso” idatzi izan”; “Aupa gizona,
jaiki mutil - atso, emazte ta neskatil”.
Zenbait bertsoetan aldaketa dexen-
teak ere egiñak zituen, baiña mamia,
ortxe-ortxe, lengoa zuan aapaldi guz-
tietan. Ez dakit nork egiñak izango
ziran aldakuntza oiek. Musikaren
konponketa, — Tolosa'ko Gabon-
Zortzikoaren aldaketa esan nai det—,
Urteaga'k egiña da. “Pentsa dezake-
zuke, abesti orrek, paperetan idatzi-
rik, daramazkian hatxeak nereak ez
dirala” esanaz amaitzen daust bere
idaztia Uxola maitagarriak.

“Eusko Gudariak gera” berea dau-
la azalduaz ere bidali daust beste
eskutiz bat; eta jakingarria dala uste
dot abesti orren sorkuntzaren edestia.
Baiña ontaz, datorren illean mintzatu-
ko gara.

LATIEGI'TAR BIXENTE

JUAN ANTONIO MOGEL, OLERKARI

GIZONA

Ez dakit egia dan Mogel aundiak bere "Peru Abarka"-n emoten dauskun esaera au: "Jan Sarrija, jan-gartzu". Ba liño legez: sarri jan ezker, gosea jaku uxatzen. Beragaz oster, ez da olan jazoten. Zenbait itzaldi, omenaldi. liburu, idaztiño ta abar osotu doguz atzo ta gaur J. A. Mogel goratuz, edo-ta Mogeldarrak aupatu nairik.

Dakizunez, ba, iru izan ziran Mogel abizenekoak: Juan Antonio, Markiña'n erretore luzaro egon eta bertan 1804'an il zana; eta onen loba Juan Jose ta Bizenta, biok euskal idazle ospe aundikoak. Juan Jose 1811'tik 1849'ra Markiña-Xemein'go erretore, eta Bizenta, Azkoiti'n jaioa ta ezkontuta Bilbo'n luzaro bizi izana.

J.A. Mogel'ek asko idatzi eban, euskeraz eta erderaz. Idazle argi ta etorri ugarikoa, ona bere euskal liburu batzuk: 1. **Konfesio ta Komunioko Sakramentuen gañean Erakasteak**, gipuzkeraz; 2. **Konfesiño ona**; 3. **Kristinauaren jakinbidea**; 4. **Peru Abarka**; 5. **Ipuin eta bertsoak**.

Mogel eta Añibarro, arratiarra, bata Markiña'n txauburu ta beste franziskota reliz-izlari, sasoi bardin samarrekook eta adiskide miñak ziren. Añibarro goratuz au diñosku Mogel'ek bere **Konfesiño Ona** liburuan: "Gura dabena sinistu Bizkaiko euskeriak ez deusala ezer zor kipu-tzenai, irakurri begi liburu onek baño leenago urtengo dabena neure adiskide andi, ta gauza onetan neure biarlagon legez egiten dan Aita Fray Pedro Antonio Añibarro Zarauzko Kolejio A. San Franziskoren Ordenan Misiolarijak bizkaitarrentzat atera dabena liburu txikar, baño urte guztiak baño geijago balio dabena". Eta Añibarro'k Mogel'gaitik bere **Gramática Bascongada'n**: "Bizkaiko abade jainkozale, langille, jakintsu, errukior eta arabera-koenatarikoa izan da".

Idazle jakintsu onen lanik ederrena, baiña, **Peru Abarka** dogu, gaurko beintzat. Orixe'k onela idatzi eban 1927'an liburua au goratuz: "Bizkaia'n ez ezik Euskalerrria'n argitara den liburutik ederrenetakoa da **Peru Abarka** (1881). Euskal-biziera gai artu zuen, eta orregatik zaigu zalegarriago. Peru nekazaria, eskolagabea, euskeraz besterik eztakiena, Maisu Juan sendagillearekin ariarazten du. Peru ederki bezain Maisu Juan gaizki mintzatzen da. Gure Basarte'ko Irakasleak erakusten dizkio Maisu Juan'i ta guri ola, errota, eundegi, arandegi ta gai erako lantegietan eta bildegietan diran gauzak eta itzak. Esaera, oikuntza, neurtitz, atsoititz eta olakoak edertzen dute iburu au... Izker apaina, bizia, etorria, ugarria ta egokia du" (**Euskal Esnalea**, 232 orrialdean).

Giza-arloan ezpiritu zabalekoa genduan. Naiz erritar bategaz naiz erbestetar jakitunaz, jokabide bardiña eukana. Etzan aundi-zale, eliztar zale baiño. Apaiza zanez, bere mendeko krirstauak zaindu ta zuzendu bear zituen; orretan egin euskuzan bere egiñalak. Euskal idazle izan ba'zan be, bere eliztarrak zituan elburu.

Idazle ta euskalari guren zanez, bere garaiko askogaz izan eban artu-emon. Mogel gertu egoan beti nornairi laguntza emoteko, eskua luzatzeko, ta doai au ederra izan oi da adiskidetasunezko lokarriak estu-estu egiteko. Etxekoak lagun miñak zituen, Añibarro, Paulo Astarloa eta abar, eta adiskide zitun erbesteko jakintsuak. Humboldt doitarra bigarrenez Euskalerriratu zanean, asko lagundu eutson Mogel'ek; eta Humboldt' i atsegin jakozan arek Markiña'ko iturriari jarritako bertsoak: 'Karlos Irugarrena/ Bizkaiko jaun dela/ Markiñako uriak/ egin dau onela./ Ugarteko axpeetan/ daukat jatorria,/ ubide sakonetan/ ekarri ugarria,/ Ur au ederra zala/ esanik aituak/ alan arindu dira/ neke ta kastuak". Adiskide zituen Vargas Ponce ta ingurukoak, aren idaztietatik agiri danez.

Idazle legez bikaiña dogu Mogel. Nik onela idatzi neban neure **Euskal Literatura'n**: "Istinga zabal bateko ura bezain gardena dogu Mogel'en izker. Edozertan trebe darabil idazkortza; euskera ez duela gaiztasunik ez eziñik nornairi adierazten emanaz. Mogel euskal idazle klasiku bat dogu, oberenetarikoa izan ere. Ba-ditu akats batzuk —nork ez?—, joskeran batez ere. Baiña ez da arritzekoa, jaiotzeko bait zeuden oraindik gure erri-euskeraren josker jatorra tinkotu zuten Arana-Goiri, Azkue, Altube, Orixe ta besteak" (II, 26 orrialdean).

OLERKARI

Eder-zale zan Mogel. Onek eta norbere izkuntza ondo jakiteak, ikaragarriro erreztu oi dau olerkigintza, edo bertsoigintza beintzat. Eta **Peru Abarka**'ren aita bertsoigintzan be jarduna dogu. Beronen loba Bizenta A. Mogel'ek **Ipuin Onak** liburua argitaratu eban, izlaur egindako berrogetamar ipuinezko liburua; ementxe datoz geigarri lez zortzi alegi osabak bertsoz idatzitakoak: 1. **Andra alarguna ta olloa**; 2. **Otsoa ta antxumea**; 3. **Lapurrak eta ollarra**; 4. **Baserritarra ta basaurdea**; 5. **Zakurra ta katua**; 6. **Katamotza ta zakurra**; 7. **Katu eizari basokoa**, eta 8. **Astoa eta otsoa**.

Etziran oneik bakarrik ondu zituanak. Bizenta'k diñoskunez, pillo galanta eukan bere osabak idatzita eta berak pillo orretatik banaka batzuk artu ebazan, adigarri

lez zortzi oneik bere liburu ipuiñez betean sarturik. Nun dira beste alegiak? Orainarte beintzat ez dakigu ziurrik.

Geroago, Julio Urkixo'k (ikus RIEV, 1907, 90 or.) oar-azten dauskunez, Azkue jaunak bialdu eutsen alegi-mordo bat Paris'ko Laterri Bibliotekan (A.d'Abbadie Bil-duma) kopiauta. Pillo onetan 35 alegi edo ipuin datoz eta amarren oiñean onela irakuten da: "**Mogelena**", au da, 3, 6, 12, 15, 20, 25, 28, 30, 31 ta 32'garrenak daroe ori.

Munduko ipuinlari jatorren oiñatzez bide egiñik, azal ta mamin ondo buruturik eskintzen dauskuz Mogel'ek bertso-lan oneik be. Irakur oso-osoa **Andra elarguna ta oiloa** deritxona ta emon zeuk eretxia.

"Andra alargunak eban
zorionez etxean
ollo arrautzaria:
ta zan ikusgarria
egunoro ifintea
utsik baga arrautzea.

Diño bere artean:
"Emon yeutxadanean
aldi batez artoa,
arrautz egunekoa
beti yeustak egiten.
Zerbada, eroaten
bayeutsat nik bi bider?"

Arrautz'bat ez dok ezer
emonik janaldi bi:
egingo bere nok ni
andi tzar biren jabe.
Zelan bada ez yauek
asmatu onangorik?"

Alan ero-erorik
gizendu zan olloa
ta arrautza batekoa
alpertu zan guztia.

**Beti izan da egia
geiegi billatzea
utsean geratzea".**

Amabostgarrenak **Otso gaixotua ta ardi askojakiña** dau izenburu. Onela asten da:

"Otsoa dabil basoetan
basterrak guztiak galduten,
emen ostu bestean ilten
jausi da txakurren ortzetan:

Eta aginka ebagirik
itziten dabee gaiztoak
galdurik bere lau zenkoak,
baia orregaitik bizirik".

Egun ta egun ondu da zerbait eta goseak artu dau, eizeak ez dautso emoten eta bedarraz ezin atondu. Ardi bat dabil antxe jaten, eta miñetan dagoala-ta, ura eskatzen dautso ontzi baten. Eta ardiak:

"—Ura nai dok nik ekartea? Gura eunke malmutz, garbitu
—dirautso urtento ardiak—, polito polito zintzurra,
ez erabil eu egarriak; ta atarako neure azurra
gosea dok, luki, gosea. ire aginetan apurtú

Arinik ezin doanean
asmadu dok ire egarria
eta azala errukarria
guzur utsa daukak miñean".

Ez eutsen ardiak malmutzari urik eroan. Eta ipuinlariak ondoren erakusle lez, bakotxak gordeteko diñosku norbere burua gaizto deunga guztietatik; ez siñistu euren berba leunik, izen ez gaitzean galduak.

Onelaxe zuur, pipertsu ta eder osotuak ditugu Mogel'en alegi guztiak; baekian nundik nora joian. Bertso guztiei darien gatza ta gozotasuna, miresgarriak dira, bizi-bizi, euskera garbi ta errezean onduak. Arabar Samaniego'ri naiz Iriarte'ri ez dautse ezer zor, ez mamiñez ez izkeraz. Neurkeran eta oskidetzan ez dautzu akatsik egiten. Zabal-aztea merezi leukie alegiok.

AITA ONAINDIA

ALDUDIAREN MENDIETAN

Beste sarri askotan lez, Gagurengo gallurrean nengoan idazlantxu au idatziten asi baiño egun batzuk lenago, alderdi guztietara adi, gure Bizkai polit eder geiena ikusiten dodala eta, beronen edertasunaz asetu ezinda, naita goitia izan ez, 477 neurkin goiraka, Bizkai'ko ikuspegi bat dalako mendi au. Eta orretara izanik, gaillurreratu ta laster, eta bakarrik ba'gera, erdi-abotsean abestuten asiten gera Sabin gure irakasleak idatzi eban abesti goxoa: Benetan da polita/gure Aberria,/bijotzez maite/bijotzez maite daigun/berak maite gaizan/. Guztirik gaixoena data/gure Aberria.

* * *

Gaillur orretan nengoala, baita, laster aditu neban Bizkai'ko Aldundiak beronen ardurapean aurkitzen diran mendietan diarduan garbitasunak, zein goragarriak diran. Lerd, piñadi baltzak zelán eratsiaz doian edo, esku zatarren baten bitartez erre ta kixkalduak izan diran, orreik egondako goialdetan aretx eta gaztaña landarak landatu eta belar-larre zabalak dabil-tzan, ipinten beratan ainbat bei eder ta zaldi-beor alikatzeko.

Lendik be, orain iru bat urte, asi ziran orretariko larrenak gertatzen

eta ondoren ainbat bei gizen euretan ipiñiaz, baiña, oraingoan Ganguren orren Ego-alderik geiena, dana Galdakano'ren erri-aldea, belar-larren sortua izango da, lurralde mamitsu ta urtsua izanik bera, ta eguzkitsua, inguru egokiak diralako abereentzat.

Ez da baiña Galdakano aldeko mendietan bakarrik Aldundiak orretan diarduna, bere ardurapean diran beste mendi batzuetan be orretara dabiltzalako, ondo dakitenak esan dauskuen lez.

Gaiñera lendik bere Ganguren'go mendidia bideakaz ondo orniduta badago be, Galdakano'ko Urgoiti (El Gallo)'n asi ta Artxanda bitxabal ederra ganik-gan dabela, oraintxe ia amaitu-gaiñean dabiltz Elorritxueta'ko mintegi ondolik asita Lezama'ko eleiz-ondora urtengo dauan bitxabal apaiña. Mendi orretara igon nai daben guztiak euki dagiezan erraztasunik onenak, geien baten mendidi ori dalako Bilbo ta albo-erri biztanletsuen arnasa lekua.

Lendik bere Bizkai'ko Aldundia txindirik asko eralgia zan mendidi onetan, baina, ez baserritarren onerako, ez eta Bizkai'ko aberetsa ugaritze-ko, orreik ezeztu ta lerd baltzez men-

diak jantziak batonbatzuk, ezdakigu nortzuk, aberstuteko baiño.

Gaur-egun gure Aldundiak diarduan lana, egintza, ez dogu uste beroretatik lortuko daben muzkintza gaitik izango danik, ziur gagozalako eginkizun orretan eralgiten daben txindiaren naiko muzkintza ez dabela iñoz bere lortuko, baiña, gure ustez beste asmu maitekor batzuk bultzatuta dabiltz; lenen Bizkai'ko aberetsa aberastu, bei ta beor abenda oneko bertoratuaz eta urren, lan barik aurkitzen diran ainbat langillei txindiz laguntzea gaitik, baiño. Asko dira aldi onetan Bizkaia'n, eta Euzkadi'n orretara aurkitzen diranak, nai-ta ez diran izango orretaiko danak Aldundi ta beren Lendakari abertzale zintzoa eskertuko dabenak, egin dautsen laguntasun anaikorrageitak.

Baiña dana dala, gure mendiak garbi ta aberez beterik eta euren alderdi guztietara bide ta bitxabal apaiñez gurutzatuta aurkitzeak, aberastasan bikaiña emoten dautso gure lurraldeari.

ALTUNA'TAR JOSU

EDESTIZKO ETA BARRU-MINEZKO OLERKIA, BIZKAIA'N (BIZKAIEREAREN ASTEA BILBON)

Jaun-andreak

Olerkia, poesia, jarri daustie gai, besteak beste, gure Bizkaieraren Aste onen leenengo egunean. Gai jakingarria, nik urte luzeetan ikasi ta aztertu dodana. 1954'an "Milla Euskal Olerki Eder" argitaratu neban eta arrezkero guztian euskal literaturari begira arduratu izan naz, gure poesia begikoen dodala. Lan au gaur ez dabe askok ikerlantzat artzen; baiña nik, alan be, uste dot euskal itz bat, morfema bat, joskera bat naiz itz-eratze bat, an zein emen zelan adierazten dan erakustea baizen garrantzitsua dala gure aurretikoak zer egin eta zelan mintzatu ziran euskal arloan, aztertu, erakutsi ta aitzen emotea.

Ni onetan jarduna nozue neure bizitza guztian, euskal literaturari lotua buru-belarri, gau ta egun. Euskal literatura oraingoz, poesiaren edestia diñot, orren argi ta aztertua ba'daukagu, ezta geiegi esatea, neuk ogetamar urte dirala batu, osotu ta argitara emondako liburu mardulari esker da, batez be. Arrezkero, Olerki-liburu ortaz gaiñ, "Euskal Literatura" (sei ale aundi euskeraz) be argitara emona izan da. Ezta artobero usaiña, bakotxari berea, zor jakona emotea baiño. Gaur ez da egi au, dan legez, ezagutu nai, eta orixegaitik diñot emen.

Aste onetan, eta gaur, nik beiñola azterturiko gaiak beraztertzerara naroa emon daustien aginduak. Euskalerrri osoko literaturaz egin nebana orduan, orain, naiz-ta labur, Bizkaikoaz egingo dautzuet. Ots, "Edestizko ta barru-miñezko olerkia (Epika ta Lirika) bizkaierearen elertian" zerbait aztertu. Elertia naiz literatura bardin dozue. Bizkaiko literaturan, beraz, ikusi bear ditugu kondairazko ta barru-miñezko poesiak, eta au, barriz esanda be, Bizkaiko literatura solo barrutian.

Kulturaren ezaugarri dozue poesia; ainbat ikuspegi edo puntutik begiratu gengike kultura, baiña unerik zeatzena izkuntzaren arikoa izango da beti. Guk lur-zati bat daukagu baitik bat, europarrak, amerikarrak, txinoak naiz errusiarrak euren daukien modu-modura. Izadia noski, geure lurra, mendi, zugatz, ibai, itxaso ta abarrez betea, Jainkoak egin eta guri emondako lur-bazter zoragarri onen jabe gara gu, euskaldunok, lur-bazter onetan bizi gareanok. Lur au ez da berez kultura, baiña bai euskaldunok emona izan jakun izadi onegaz, lur-bazter onegaz egiña —etxeak, bideak, zubiak, itxas-ontziak—, au guzti au kultura dozu; kultura dira gure liburuak, gure legeak, gure kantak, gure doiñu ta dantzak, gure eziketak, gure literatura, dala itz-lauz dala olerkiz.

Euskalduna daukagu eusko-lur gaiñean, millaka ta millaka urte ondoan, etsai ez txikiz inguratua, gaur be oraindik bizi dana lur-moltzo medar onetan, eta bizi gura dauana. Gaur izadia zaintzeko, mendiak, abereak, erreka ta itxasoak jagoteko, antxiñakoen bizileku ta gomutagai-

lluak gorde ta babesteko alegiñak egin oi doguz. Eta izkuntza? Gure euskera babestu ta indartzeko, zer egiten ete dogu? Berau ez al dogu euskal kulturaren zantzu ta laburpenik beiñena, ederrena? Gizona gizaldiak zear sendo ta kementsu saiatu izan da izadiaren (Naturaren) aurka burrukan, janaria eskuratu nairik, esate baterako. Gizonak barriz itz-egin dau auzokoakaz, bere kidekoakaz zelan jokatu dauan adierazteko; or beronen saioak, egin-naiak, izerdiak ari ta oni iragarri ta esanak. Kulturaren itxituan gagoz. Kulturaren emoitze dozu izkuntza; bai, izkuntzan dago kulturaren mamiña, nai ba'dozu, ardatza. Pentsalari da gizona ta pentsamentuaren ekarriak dira, izkuntzaren bitartez, gure lanak, obariak eta aurrerakuntzak. Kulturak eta izkuntzak artu-emon estu-beroa dabe alkarrekin.

Eta kulturarik oso nagusia, beste arte-adarrai ezer-txo be moztu barik, kulturarik trinko ta ederrena, literaturazkoa da, liburuetan daukaguna. Liburuetan dagoz irarrita, josita lez, gure buruaren sorpenak, pentsamentuak, ideiak. Eta pentsamentuok batzuk prosaz dagoz adierazorik, beste batzuk itz-neurtutan, olerkietan.

Onenbestez jo daigun arlora. Ikus daigun euskaldunak, Bizkaizkoak ain zuzen, zer itxi dauskuen gizaldietan zear itz-neurtuz; zer kantatu daben edestian zear, jazotako gauzak naiz asmatutakoak, au da, koplaz zaarrak —maite-leloak, illetak, abestiak—, eta zer itxi dauskuen barru-miñari buruz olerkiz idatzita.

Gai zabala ta jakingarria. Lau ataletan emongo dau tzuet guztia:

1. **Kopla zaarrak bizkaieraz:** Maite-leloak, illetak, abestiak.
2. **Aozko elertia arlo onetan.**
3. **Idazlaririk ospetsuenak.**
4. **Gaurko elertian girona edestizko ta barru-miñezko olerki-saillean.**

I. KOPLA ZAARRAK

I. Zer diran

Istoriaren leen-laiño artean galtzen jaku errialde guztien literatura, aozkoa beiñik-beiñ. Orrez gero ez jaku errez izango aren asieraren aztarna, bere leenean, aurkitzea. Urrun dau jatorria, baiña aoz adierazten ditu gizase-meak bere gogai ta buruzko sorpenak; eta miiñezko adierazpen ori dogu izkuntzaren leenengo frutua. Alan be, or geratzen dira antxiña bateko gizonaren —euskaldunaren— misteriozko itzak, esaerak, bertsoak, koplaz zaarrak. Alegiñak alegin, ez jaku errez noiz eta nungoak diran jakitea, baiña or daukaguz orreik, koplaz zarrok.

Etorkizunari begira, gizonak bear bada, tresna barriz nurbait, ondoren letorken gizonak, gure eta antxiña-antxiña bateko gizonaren itzak, berbotsak eta abar, jasoko ei ditu. Orduan ausaz zerbait lortuko dabe, geroko gizonak diñot, orain illun-lezan daukaguzan gure koplak zarrak, gaur airean zear kulunka antzo dabiltzanak jaso ta adierazoz. Olan, areik be miiñez doetuak ziralako, ta motelak ez izan, ba leiteke, bai, parka bir-esate au, arein solasak, itzak eta barru-asmoak tramankulu bereziz artuak izatea. Eta orrela gure ondorengoak jakingo dabe nortzuk izan ziran gure guraso ta arbasoak.

Dana dala, euskalduna beti izan da kantari. Eta amai-ka kanta eder ba-da gure ortzipean dantzari. Bear bada erri osoa izan jaku, gaur be guztiz kantari agertzen data. Euskaldunak ederra sentitzen dau, edonok ez ba'daki be bera jaso ta adierazten. Beti aurkitu izan diran euron artean, batzuk beste batzuk baiño geiago bat-bateko jardenez saiatu diranak, euren barrua, euskal erriarena, sentipen biziz azaltzen alegindu diranak. Griegoak euren rap-sodak eukezan, adibidez. Erdi Aroan juglaren ebiltzan erriz erri ta jauregiz jauregi, euren erriak gudatean naiz bakean sustatzen. Gurean bertsolariak egin izan eben, eta gaur be ba-dagie, lan goresgarri ori.

Naiko aberatsa dogu euskaldunon aozko literatura. Kantuz emona geienik. Eta kantuan musikaren doiñua zaindu bear da ezinbestez. Kantuaren egiturak eskatzen dauku silaben, neurria, azken oskidetsu edo errimea, barruko airea, erritmua deritxona. Zer dituzu eurok? Zortziko txikiak, esaterako, zazpi ta sei silabaren neurria dau, eta silaba bat geiago ezarten ba'dautsozu, laster agertzen jatzu neurriaren utsegitea; zortzi bertso-lerro daukaz, 7/6, eta bertso-lerro bat geiago sartu ezkerro, laster dozu naastea; bertso-lerro bakotzak barne daroan edo eroan bear leuken barru-igitura be inportantzi aundikoa da. Onek ezarten dautso bertsoari doiñutasun berezi-berezia.

Alderdi askotatik begiratu geinkie koplak zaarrai. Emen, baiña, euron gizarte egiteko zeatzari begira aztertu-ko doguz batzuk eta bakar-bakarrak, beste alderdiok gaurkoz beintzat albora itxirik. Oso apartekoak dira koplak zaar-rrak euskal literaturan, Bizkaia'n bertan be asko erabiliak. Abestiak dira, edo-ta izan dira geienak; teknika berarizkoa dabe. Euskalariak, au da, gai oni oratu dautsoen guztiak ez dautse euroi izen bardiña ipiñi. Manuel Lekuona'k, esate baterako, "koplak zaarrik" deritxenei Azkue'k "Eskalarienak" dakar, eta beste.

Azkue'k, dirudienez, errondian abesteko ziranai begira osotu euskun bere sailketa. Lekeitiar jakintsuak erri-olerkietan sartzen ditu: Aldartezkoak, dantzakoak, edaleenak, elizarakoak, **eskelarietak**, ezteietakoak, gertaridunak, illetak eta ipuiñak.

Irakur, erakusburu lez, "Erromerua" deritxon au:

Erromerua loratsu	Etxeburuan oillar bi,
beti Jainkoa amatu,	batak bestea dirudi.
orain emendik	Etxe onetako etxeko andreak
bear genduke	Ama Birjiña dirudi.
etxeko andrea koplatu.	

Itzak eta ideiak alkar lotzeko era au, antxiñakoa dogu euskaldunok, antza danez. Beste izkuntzak ez daben oituzko tankera bat, idurimen azkarra derakuskuna. Adibidezko estrofa biotan, iduria ta pentsamentua daukaguz, argi ta garbi. Aurrenik erromerua dakus olerkariak lora-tsu, ta idurimena joako bertatik Jainkoagana, "beti Jainkoa amatu" esanik; ondoren dator pentsamentuaren esan-naia, etxeko andrea koplatu ta abar.

Bigarren estrofan oillar bi iruditzen ditu olerkariak etxaburuan, biak antzekoak, eta gogora datorrio beingoan aurrean daukon andreak Ama Birjiñaren itxura dauala, "Etxe onetako etxeko andreak/ Ama Birjiña dirudi", esanaz. Era berezi-berezian lotzen ditu iduria ta esan-naia.

Jose Ariztimuño'k, Aitzol'ek, bertso-joko au azaldu nairik, estrofearen leen-zatia "oiu-egillearen" deia dala diñosku, eta bigarren zatia, oiuegille edo mezulariaren atzetik datorren zalduna. Aren itzak: "Ura, irudia, iragarle bezela beti lenen; beste onako au, oldozkuna, oiuegillea adierazten dauen zalduna lez, aazkena. Eredue ta amets asmaketak irudimenaren seme arroen antzera; oldozkuna, berriz, adimenak sortutako ondorengo nagusi balitzaiguke bezelaxe". Onela edo:

Irudia

Irudia:

"Otea lilia danean,
txoria aren gainean".

Gero oldozkuna:

"Zure ta nere amodioa
ala dabila munduan".

Euskaldunak maite izan dau bere lurra, Izadia, eta bertso-lan bat osotzerakoan, araxe doakio lenengo bere irudimena. Eta, egi-egiaz, araxe beste ez dauko zetan joan-rik irudi eder billa; arexek emoten dautso gairik naikoa, sotil baizen atsegin, au da, laiñoak, ametsak, maatsak, neguak, eper zango gorriak, mertxikaren loriak, txori papogorriak, zeruko izarrak, ziriko baltzak, baratzeko pikua, urretxindorren goiz-aldeko ekiñaldiak, errotaren kalaka-otsak, barne-zauskada triste ta samurrak... ez dau geiago bear bertso biribil, sakon, giartsuak burutzeko.

Aitaturiko zati biok, alan be, lokera zeatza dabe. Gai ontzaz poliki idatzi dauan J.M. Lekuona'k onela diño: "Pre-logikaki" egindako lotura hau dugu, teknika aldetik, koplak zaharra esanda aditzera ematen dugun estrofaren egitura ta berezko dinamika" (**Ahozko Euskal Literatura**, 49 or.).

Ona Azkue jaunak Ipiña-Zeanuri'n batutako Santa Ageda 19 estrofako kantaren aapaldi batzuk: 1, 2, 9, 14, 16 ta 19.

—Santa Ageda santia,
Muniketako loria,
martirioak pasa zenduzan
igarotearren fedea.

—Bedeinkatua izan dedila
etxe onetako jentea,
pobre ta umilde direanentzat
badauke borondatea.

—Sibili eta Granada,
Ondarrabia'n gerra da;
etxe onetako nagusi jauna
bakeak egiten ari da.

—Idi zuriak ekarten daude
karabirako atea,
etxe onetako zaldun gazteak
batuta dauko dotea.

—Kerexa txiki betea,
aurten da zure urtea;
zeure matraillak dirudiela
kabelinearen lorea.

—Eder elizan liburu,
usoak aren inguru;
etxe onetako txikar-andiak
Paradisuan aingeru”.

Aitzen emon dogunez, ari askotakoak dira koplak zaar-
rak. Baiña emen lar ez luzatzeagaitik, iru klase aitatu-
doguz. Maite-leloak aurrenik.

2. Maite-leloak

Kanta oneik, besteak beste, ugariak dozuz euskal lite-
raturan. Nun-nai ta noiznai kantatua izan da maitasuna.
Ez, au ezin gengike uka, maitasuna dau biotzak berarizko
kantagai; berezko iturria dau-ta, giltzari eragin ezker-
o, ortik jario, Kantatxorta ugariak ezagutzen doguz gai one-
taz osotuak. Ikus, astirik ba'dozu, nik beiñola argitaratu
neban “Maitasunezko eun olerkirik onenak” liburua, eus-
keraz ta erderaz. Bertan daukazu eredu-sail galanta.

Asko ta sentikor-sentikorak doguz erritar kanten
artean. Batzuk baiño ez, jakiña, koplak zaaren tankeraz
egiñak besterik ez aitatzeko, emen dituzu oneik:

“Esku xurietan eder arrosa,
eder arrosa;
are ederrago zitroina.

Hora Joanez hori zoin den ederra,
zoin den ederra!
Aurten ezkontzen omen da”.

Mamiña: igande arratsalde, maiteak larrosa bat artu
dau esku zurieta, eder-ederra nunbait; Joanes gaztea,
alan be, berak kutun dauana, ederragoa da oraindik. Las-
ter ezkonduko dira, abi bat osoturik.

Ortzipean zear dabilkiguzan izar aundi biak be, eguz-
kia ta illargia, kantagai jori ta aberats izan ditu euskaldu-
nak. Maite-leloetatik atera geinkenez, ez dau gitxitan jo
eguzkiagana Pozaren billa, ezta gabaz be illargiarengana
argi-billa. Onela diño, naiz-ta mugaz bestaldekoa izan,
maite-poesi samur onek:

“Iduzki denean, zoin den eder itzala!
Maitia, mintzo zira, plazer duzun bezala.
Egiten duzula
mila disimula,
iñorant zireala;
erraiten duzula
bertzetaik naizela;
falsuki mintzo zira”.

“Kaila kantuz” asten dan zazpi aapaldi irukoitzekoak
be onela diño:

“Kaila kantuz ogi petik Uztaril-agorreletan;
maitea ganik etxerakoan entzun izan dut bortzetan,
amodioak bainerabilka haren ate leihoetan”.

Eta amodioa “nik batentzat hartu dut eta sekulan ez
dut utziko” esan ondoren, irugarren irukoan, onela kanta-
tzen dausku:

“Kukuiak umeak xilo ttipian haritz adarren gainean;
ama, ni ere ezkondu nahi adunak ditudanean;
ene lagunak e inak dire jua den aspaldi handian”.

Ari berekoa lau aapaldiko beste au be:

“Munduian den ederrena zelian ekia;
lurreko anderetan, oi! ene maitia;
begia duzu nabarra, zuri-gorri larria,
ene begietako xarmagarria”.

Onelaxe, asko nekatu bage, txorta aundi bikaiña osotu
daikegu. Baiña naikoa eredu bezela.

3. Illetak

Alderdi au be ez dogu idorra. Ogetairu illeta eskintzen
dauskuz Azkue'k bere “Euskalerraren Yakintza” libu-
ruean. Eta nik “Milla Euskal Olerki Eder” moldatzera-
koan, ogetazazpi sartu nebazan bertan “Irri ta negar”
izenpean. Ona lekeitiarrak Ultzama ibarrean batutako bat,
labur-labur:

“Itxas gizontto bat zidan senartzak nere amak eman. Zerren ez legor aldera joan beste bat artzera? Orain zoria nuen nik, zuri ta gorritz jantzirik.	Gaixoa urak eramane zuen San Markos goizean. Oi! egun andi argia, neretzat illun tristia. Arraiñen jaki izateko sortu al zinan, senarko!”
--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------	----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------

Azken urteotan, drogarik naiko sartu jaku Euskale-
rrian. Alegiñak eginda be nekez úxatuko dogu izurri au
geure lepotik. Ezin astindu gatxez joak gabiltz andrazko ta
gizonezko; leendik be ez giñan kutsi bageak eta orain bes-
te batzuk, bildurgarriagoak bear bada, lupuak jota lez aur-
kitzen gara. Zein, baiña, leengo izurria? Ardo-zale, napar
mama gozo zale —droga bat ez ete?— beti izan da euskal-
duna. Gaur osterera, ez gara gizasemeok bakarrik ukondoa
jasoten dakigunak; emakumeak be, zaar eta gazte, arra-
pastaka doakiguz txiribogiñaren lezara, egarbera dirala-ta.
Ba-dakie, bai, zurrut egiten!

Ona zer diñoan koplak zaar onek:

“Zorabiatua naiz munduko bizitzan,
nere begietara onera etorri zan.
Kantuz esango dizut ze moduz gabiltzan:
dama eder batekin esposatu nintzan.

Dama hura zebilan itxuraz jauntzia,
ongi orraztua ta liraina garria.
Ardoerik edatzen etzuela lenago,
ni enganatu artean zebilala nago.

Frankotan izaten naiz kanpoan lanean,
ongi etorri onak ark ni natorrenean.
Andra mozkorturik, il baten antzean,
zistua dariola sukaldamenean”.

Negargarri ziñez aita mozkorra etxean; negargarriago, baiña, ama orditurik sukalde ertzean. Il-kanpaiak ez dira biratzen illengaitik soilki, baita lotsagarriri dabiltzanakaitik be, erabat.

Auzoko erriak zelan jokatu daben jakiteko asti barrik, guk geurean daukagu negar-gairik naiko: gure Foru zaararak erostariak aitatzen ditu, etxeren baten norbait ilten zanean, gaubelan eta ilobirakoan, etxekoai negarrez jarraitzen eusteen negarti erostariak; illari lurra emokeran batez be, ildakoaren bizitza ta mirariak kantatu oi ebezan erostariak. Andarien atzetik koplak abesten zituenok bertsolariak, emakume bertsolariak genduzan ziur asko. Orrelakoen erosta-kantak, asko ta asko beintzat, jaso ta jaso barik genditu jakuz. Aizeak eroandako orbel oriak izan jakuz. Tamalgarri!

Ontaz naikoa da-ta, bego emen azkenez, Azkue'k Zorrotza'n baturiko aspaldi bikoa au:

“Au da urkamendiko aizearen otza!
Jaunaren aurrerako nik daukadan lotsa!
Zerren egin dudazan zazpi eriotza,
zazpi eriotza ta, non dot neuk biotza!

Atzo etorri jatan agindu barria,
lester kenduko dostela gose-egarria
Bai ta etorri jatan arreba gaztea;
tamal artzen ebala ni olan ikustea”.

4. Abestiak

Adar askotan zatitu geinke erri kantazko literatura, baiña ba leiteke zatikapen nasai zabalena auxe izatea: aozkoa ta klasikoa, mende luzeak zear aoz-ao eldu jakuna ta lumaz idatzita iraun dauana. Batak zein besteak ba-dabez euren bide bereziak bai irudirenez ete baiesakeraz; biak izan dabe berarizko ederkera, ederkera, gaur be nabari samar dabilena. Beste saillak atzera itxita, literaturagintzari gagokiozalarik, au zalantza barik esan daikegu: aozko literatura pusketak baiño ez dirala gudanaiño eldu, naiko pusketak, baiña ez osorik ez lenengoz abestu ziran moduan, naikoa lorrindu ta zatiturik baiño.

Joera bi oneitatik, zein ohea? Itaun oneri ez dautsogu errez erantzun egokia emongo. J.M. Lekuona'k leen aita-turiko liburuan, onela idazten dau: “Ba dirudi, kontrapuntuan bezala doazela beti herri-literaturaren eta literatu klasikoaren garapenak. Bata indartu adinean indar-galtzen doala dirudi bestea. Erdi Aroko joeretan, Erromantizis-

moan eta oraingo abangoardi giroan du indar ahozko literaturak; eta ez hainbeste klasikoen mundua ahotan dabilenean, errenazimenduan, neo-klasiko garaian eta abar. Gaurko abstrakzio-joerak, adibidez, gaurko irudiera subjektiboak, gaurko teatroaren askatasunak eta egunero-kotasunak kidetasun beteagoa hartzen dute, noski, ahozko literaturan, gure zenbait idazki klasikoetan baino”.

Gure literatura idatzia, funtsezkoa beintzat, ez da zaarra: 1545'an argitaratu zan Bernat Etxepare'ren poesiliburua, edu orreitakoan arteko leenengoa ain zuzen. Aoz-ao ta kantuz erabillia ta etorria dozu leenagoko gure literatura; aoz-ao erabilli ta landurik iraun-azo eben gure gurasoak, kantuz emanik geienbat belaunez belaun euren seme-alabai. Literatura au, bein esan, aoz-aozkoa, aberats-aberatsa izan danik ezin daikiegu iñok ukatu. Or gaur be abesti sail mardulak, noiztikoak diran ez dakiguzala. Euskaldunaren intziri, asperen eta biozkada benetan ederrak, euskal arnasa beraz orniduak.

Textuz eta jantziz dotore, zenbat abesti bikain ditugun! Esandako koplak zaararak, trikitixak, marijesak eta gaiñerakoak ez-ezik, konta ezin alako abesti mordoak ezagutzen doguz Euskalerrian, zein mugaz emendik zein andik. Erri-kantetan gure gaiñetik agertzen jakuz prantsez euskaldunak, zuberotarrak ain zuzen be. Or dituzu, batzuk aitatzeko, “Altabizkar'ko kantua”, “Bereterretxe'ren kantoria”, “Atarratze Jauregiko anderearena”, “Andra lokartua”, “Urtsua'n illarena”... eder-ederrak. Beste oneik: “Aitarik ez dut”, “Agota”, “Goizean goiz jeikirik”, “Xori kantatzale eijerra”, “Oi, penarik ez banu!”, “Xarmagarri bat”, “Lili bat ikusi dut”, “Txori erresiñula”, “Mendian zoin dan eder”, nok daki oneik noiztikoak diran?

Bizkai aldean, egia esan, ez dogu ain aberatsa gure erri-kanta bilduma; baiña geurea dogu (askok onartu nai ez dauan) “Lelo'ren kanta”; geureak ditugu “Perutxo'rena”, “Alos-torrea”, “Milia Lasturén eresia” eta Azkue jaunak bere “Euskalerraren Yakintza” (IV) liburuan, 14'gn. orrialdetik 196'ra damoskuzan 221 lanetatik ainbat. Ona bat, “Peru gurea” deritxona. Ipuin zabal samarra, gaur ta biar gertatzen dana.

—Londres'en dot neuk senarra
zirin-bedarrak ekarten.
Bera andik dan artean
gu emen dantza gaitezen.
Oi, au egia!
daigun jira bi, Maria

—Kapoia dagoz erreten
oillaskotxuak mutiltzen,
orrek ondb erre artean
gu emen dantza gaitezen.
Oi, au egia!
daigun jira bi, Maria.

Neure oillanda nabarra
txikarra baina zabala,
zetan bai i auzora,
etxean oillarra donala?
Oi, au egia!
daigun jira bi, Maria.

Neuk ugazaba nekusan
Izurdia'ko zubian.
Ori zestotik urten artean
gu emen dantza gaitezen.

Oi, au egia!
daigun jira bi, Maria.

Neure mutiltxu txoria,
ik esan eustan egia:
gaur gabean dantzauko zala
nire emazte Maria.
Oi, au egia!
iretzat mando zuria”.

II. AOZKO ELERTIA ARLO ONETAN

Geiegi ikusi ta aztertu barik daukagun arren, gure aozko literatura ez da, esan dogunez, urri ez exkasa. Gure aurretik erri-poesiaz kezkatu ziranak, Txarles Bordes, Azkue, Aita Donosti, R. Gallop, J.K. Gerra, F. Mixel, J. Sallaberri, J. Riezu ta besteak osotu ebezan bilduma ta antolojiak eta kantutegiak ikusirik, aberatsa dala esan geinke benetan gure erri-literatura, bai kopuruz, lanez eta bai zelakotasunez, au da, barruko garrantziz. Gai ontaz obeto konturatzeke, lan bikaiña izango litzateke kantutegiok daben mamiña ta azala, barne-guna ta jantzia astiz eta txeraz aratu, aztertuta gogo emotea. Ez genduke orre-tan denpora galdu egingo.

Gai au naikoa sakon beatu eban J.M.Lekuona'k onela autortzen dauku: “Gure arteko idazlanetan esandakoak eta kantutegietan dauzkagun gai aberatsak, elkarrekin konparatzen baditugu, zeregin bereziak aurkituko ditugu poema zaharren azterketan; hutsune nabariak, behar bada. Besteak beste, euskarazko konta-poesiari dagozkion berarizko xehetasunak oso gutxi aztertu ta finkatu izana” (*Idem*, 81 or.). Utsune au aundiagoa iruditzen jaku oin-diño euskal erromantzeen inguruan agertzen dana.

Erromantzeak, gure aurretikoen gerta-kantak eta poesiak zatika bakarrik eldu dira gugana, musikari esker giengeienbat. Aitatu doguzan gure altxor-batzailleak erriak erabiltzan musika-doiñuakaitik batez be, oneik guztiz eder, sentikor eta aberatsak ziralako, bildu ta eskuratu ebezan baitik bat. Ez kantu orreik daukien letragaitik, musikagaitik baiño. Gure asabak, euren esentipenak adierazteko erabilli zituen doiñuak, musika, bizi-bizi daukagularik be, barriro diñot, musika orren letrea gizaldiak eta urteak zear leza illunean datzala esan bearrean gagoz. Ortaz gaiñ, gugana eldu diranak be, zatiak, pusketak besterik ez doguzala. Beraz, ez da zeregin erreza pusketak orreik eratuz alkar lotzea, ezta erri-poesi bati gagokiozala, zein dan leenengo pusketak, zein da bigarrena naiz amargarrena jakitea.

Azter dagigun, esaterako, gure konta-eresi bat, olerki epiku bat, aspaldi jazo, idatzi ta eraturiko bat; zer izan zan, noiz gertatu zan bera, nok idatzi eban, zelako neurke-ra darabillen, eta nekez aterako dozu zer argirik. Azkue'k bere Kantutegian, Bizkaikoen artean bakarrik, 54 dakaz,

onela: aldartezkoak, 8; dantzarakoak, 20; edaleenak, 4; elizarakoak, 4; eskelarienak, 4; ezteietakoak, 4, gerturidunak, 2; illetak, 2; eta ipuiñak, 6. Eurok irakurriz oartzen gara, lan luzeago baten pusketak besterik ez dirala. Eta au jazoten jaku: eagarbera urreratzen gara sorburura eta eagarria pizkat arindu orduko iturriko ura intsugitzen jakula. Geiago xurgatu naian geratzen gara.

Irakur eizu au, naiko osoa, ain illuna ez dana:

“Egun on Jainkoak dizula, andratxo gaztea. —Baita zeurorri bere, galaitxo maitea.	Zanko ederra dozu, andratxo gaztea. —Nik alan gobernatu, galaitxo maitea.
--------------------------------------------------------------------------------------------	------------------------------------------------------------------------------------

Senarrik eta ba al dozu, andratxo gaztea? —Indietara joan zan, galaitxo maitea.	Kopeta ederra dozu, andratxo gaztea. —Nik alan orraztuta, galaitxo maitea.
------------------------------------------------------------------------------------------	-------------------------------------------------------------------------------------

Umerik eta badozu, andratxo gaztea? —Bi, seme ta alaba, jauna, or dira.	Surtan erreko al zara, andratxo gaztea. —Zeu illinti zareala, galaitxo maitea.
----------------------------------------------------------------------------------	-----------------------------------------------------------------------------------------

Umeok nundik dabiluz, andratxo gaztea? —Eskolak ikastera, jauna, joan dira.	Urak eroango al zaitu, andratxo gaztea. —Zeu aurretik zareala, galaitxo maitea”.
--------------------------------------------------------------------------------------	-------------------------------------------------------------------------------------------

Alderdi askotatik begiratu geinke poesi zaarra. Eta berau aoz datorkiguna izan daiteke, ots, gurasoengandik seme-alabetara urtez urte ixuria; baita idatziz, amalaugarren gizaldiz gero batez be, naiz esku-idatziz naiz argitaratuta gubanaiño eldu dana, Eusko-idatziak, bertso-metak eta kantu-pilloak aurkitzen dira munduko liburutegi edo biblioteka askotan; argitara emondakoakaz be, liburu-sail galanta osotu geinke or emengo aldizkari, eguneroko ta idaztietan dagozanakaz. Oneitakoetan batzuk gerta-poesiak dira, konta-olerkiak, eta beste batzuk nobere barru-miñak sortuak, liriku saillekoak.

Gaur, zoritxarrez, erromantze deritxogun poesi-mota askotxo beeratu jaku. Olerkietan, gaiñera, gitxi baiño ez dogu sartzen alkarrizketa, gure asabak sarri erabiltzen ebena. Gaur-eguneko kale ta saloi-kantariak, alan be, abestu oi dabez gure lelo ta kontaerak, leen luze samarrak ziranak nunbait, baiña oso laburturik, estrofa batzuk geienik eta oneik bekantariak darabillen musika-doiñuari egokituz, pusketak batzuk ain zuzen. Aurretikoen gatxak jota gabiltza. “Gaurregungo ahogozorako luzeegiak diren kontraera poetikoak, estrofen aukera egin ondoren —idazten dau J.M. Lekuona'k—, laburpen gihartsu baten gisa eman ohi dira. Horrenbestez, lauderduan dator usariozko altxorra, berez kontraera zena, orain laburturik, kantuaren eusgarri soil gertatzen dela” (*Ibidem*, 66 or.).

Aurreko gizaldian be baiña XV eta XVI'garren gizaldiak doguz eredu epikuetan aberatsenak, ordukoak bait dira Aide Nagusien burruka ta istilluak; ordukoak edo aurreragotxokoak Akondia'ko gudu-kanta, Urruxolakoen, Milia Lasturkoren eresia, Gontzalo Moro'ren koplak, Peru Abendaño'rena, Arrasate erre ebenekoa, Olaso'ren

ezkontzakoa, Sandaili kanta, Martin Bañez artazubiaga' ren illeta, Salinas'ko kondearena, Alos'ko Beltran'en eresia, Diego Lopez Harokoarena, Perutxo'rena, eta abar.

Bizkaitarrok ba-dogu beste kanta berezi bat, "Lelo'ren Kanta", zenbaitek egiazkoa ez dala esanagaitik, geurea doguna. Zazpi bat aapaldi ditu. Antxiñakoa dirudi, baiña ez dakigu noiz egiña danik. Erromatarrak emendik ibilli jakuzaneko burruka ta nasteak dakarskuz gogora. Galdua genduan nunbait, ainbat euskal kanta zaar lez; paper-automatik ontzitu artean lo egoan, Markiña'n, Mugartegi'ren liburutegian, Humbolt alemanak aurkitu arte.

Euskalari batzuk, illunetatik iges egin naita agiri danez, ez dautsoe olako gora aundirik emon gura. Alan be, L. Mitxelena'k bere textu zaarren artean sartu ez arren, badau zaar-sunda. 1529'ranta ondua dogu, diñoenez. Bizkaitarra dan egillea, Arrati aldekoa, ibar orretako euskeran egiña da-ta. Anton Bedia arratiar zaldunak "Tratado de las cosas de Vizcaya" idatzi eban; Karlos Vgarren erregearen jauregikoa zan berau; onena ete dan susmoa dau, Lelo kanta au ain ederto aztertu ta argitara ekarri euskun J. K. Gerra idazle argiak.

Entzun berari: "Menendez Pelayo jakintsuak, bere jakinduri ta guzti, kantu au, gezurrezko bezela lurperatu bear zala idatzi zuanean,, aztu zan noski be berak ez zeuzkala lurperatzeko ustean Karpio'ko Bernardo eta Lara'ko Infanteen kanta, gezurrezkoak izanagatik... Nork egiztatu dizkigu Ulises eta Eneas'en jazarra ta ibilkerak? Ordia iñor xok ez diete kenduko Omeró'k eta Birgilio'k eman zieten bizitza illezkorra. Bere taiuan eta garri ederraren aunditasunean ez det nik berdinduko ez antzenduko Lelo'ren kanta Odisea eta Eneida'rekin; ori ez. Gezurtasunean berdindu dezaket, ordea; eta irakurgai bi oiek ez badira latindarrentzat lurperatzekoak, ez daukagu euskaldunak zertan eta ez zergatik lurperatu Lelo'ren kanta" (**Gure olerki zar-zarrak**, 126 or.).

Ez dakigu zenbat aapaldik osotzen eben kanta au. Iburguren'en bilduman aldatuak datoz. Gaur, zelan idazten diran, zazpi edo amalau ezagutzen ditugu, oso samar. Onela dozu asiera:

"Lelo il Lelo, Lelo il Lelo,
Leloa, Zarak il Leloa.
Oktabiano munduko Jauna,
Lekobidi Bizkaikoa".

Lelo onek jatorriz **kanta** esan nai eben, XIII'garren gizaldi osteko textu batzuetatik agiri danez. Ori berori dakar Perutxo'ren kanta; eta Salinas'ko kondearenak. Etxepare'k onela, **Potaren galdatzia** deritxon lanean: "Eta lelori bai lelo/, pota frango,/ bertzia bego"; eta **Sautrela'** ren amaieran: "Eta lelori / bai lelo leloa/ zarai leloa". Iñoiz, dakusgunez, abestiaren asieran artzen zan, iñoiz baita amaiterakoan; bertso-esaldiari neurria ta jasa emoteko erabilten eben, bear bada.

Itz ori geroago nortu egin eben, lelo Lelo biurtu nunbait. Gerra'ren irudimenak batez be, nortasun berezia ezarri eutsun; idazle azkar onek, egia esan, ba-eban ortarako

errazoirik, ainbat kanta zaar iñok ez bestean adierazo bai ebazan eta. Eta zillegi jako dakianari illun artean be bide egitea. Eta Gerra'k diñosku Txanton Bedia gizaseme azkarra zala, Karlos V'garrenak txit maitatua. "Orrek, nere ustez —diño—, euskerara biurtu nai izan zuen Agamenon'en kondaira eta otu zitzaion esatea Lelo zala erromarrren aurka gudan ari zan bitartean bere emazte Tota adiskidetu zala Zara deitzen zan gazte batekin; onek Lelo gudatik etorri zanean il zuala Lelo, eta euskaldunak naigabeturik bota zituztela erritik kanpora arika Tota eta Zara, eta Lelo'ren izenak beti-betiko iraun zezan erabaki zutela kanta guzien asieran aipatutzea bere eriotza negargarria" (**Ibidem**, 125 or.).

Leenengo Lelo'ren eriotza edesten dau egilleak; ondoren bizkaitarrak erromatarrak egindako gudan bost urtez izan ebezan goraberak azaltzen ditu. Naiko zatitua dagoan arren, badau bizitasuna ta maiña.

III. IDAZLARERIK OSPETSUENAK

Irarkola, inprenta agertu zanetik, panpox agertzen jakuz liburu berezietan gizasemeen eta emakumeen oldozkun-biozkadak, orrietan txukun josi ta loturik. Euskeraz be Euzkadi'ko zazpi probintzietan daukaguz liburuak. Leenengo agertu zana Beñat Etxepare'ren olarki idatzia dozu, gorago esan danez, 1545'an argitara emona. Bizkaia'n be ba-doguz euskal idazleak amaseigarren gizalditik ona; batzuk prosaz idatzi ebezan euren lanak, Betolaza'k adibidez XVI'garren mendean; Rafael Mikoleta lizenziatuak, Martin Otxoa Kapanaga mañariarrak eta beste batzuk amazpigarren mendean; Nikolas Zubia'k, Marzadun'ek Basterretxea lekeitiarrak, Sebastian A. Gandara gernikarrak eta Bartolome Olaetxea laukarizkoak amoztzigarrenean, eta oneitatik iruk beintzat itz neurtuak be idatzi ebezan, Basterretxea'k "Jeskristoren Pasiñoa", Gandara'k Gernikaldean abestuten ziran Marijesiak eta Olaetxea'k bere dotriña liburuansartu euskuzan bertsoak.

Emeretzigarren gizaldia naiko aberatsa izan jakun euskal literaturan Bizkaia'n be. Ogetamar idazle datoz nire "Euskal Literatura"-n (2'gn. alean): J. A. Mogel, Pedro A. Añibarro, P. J. Patrizio Astarloa, Paulo Pedro Astarloa, J. Antonio Aboitiz, Aita Prai Bartolome, Domingo Kanala Etxebarria, Juan Mateo Zabala, Juan Kurutz de la Fuente, J. Jose Mogel, Bizenta A. Mogel, Pedro Novia Salzedo, Juan D. Unzueta, Aita Kristobal Linaza, Jose Antonio Uriarte, Eusebio Maria D. Azkue, Balentin Berriotxo, F. Martin Ortuzar, Balbino Garita-Onandia, Jose Maria Anpuero, Luis Zirilo Iza, Juan Jose Salazar, Ramon Etxezarreta, Aita Daniel Baertel, Andres Iturzaeta, Eustakio Madina, Meltxor Andonegi, Ezekiel Etxebarria, Bonifazio Latxa.

Oneitatik amaika beintzat bertsoz idazten be saiatu ziran. Juan A. Mogel'ek ainbat ipuin biribildu ebazan bertso giar eta ederto emonez; Bizenta Mogel'ek bere "Ipui Onak" deritxon liburuak ipuin mordoa eskintzen dausku,

Okendo'ko Ullibarri'k lez Gabon-kanta asko be ondurik; Bilbo'ko seme Mateo Zabala frantziskitarak bardin, ainbat ipuin ditu bertsoan, "Milla Euskal Olerki Eder" (263 of.) ikusi daitezunez. Era berean idatzi eben bertsoz Arrigorriaga'ko seme Juan A. Uriarte'k, Balbino Garita-Onandia'k, Eustakio Madina'k eta Meltxor Andonegi'k be, aitaturiko liburuan ikusi zeinkenez.

Guztion artean buru agertzen dana, alan be, lekeitiar Eusebio Maria Azkue, "Parnasorako Bidea" poesi-liburua idatzi ta aren seme R M Azkue'k, 1896'an, Bilbo'n argitaratu ebana dozu. Burua ta biotza, pentsamentuak eta sentipenak, ondo eioten ekiana zan Azkue, eta poesi-moltzo ederra da ak itxi euskuna. Ona lau aapaldi ikusteko ta gozatzeko "Mogel eta Txaraka" izenburua daroan 20 estrofako lanetik aterata. Irakur:

"Markiña'ko zaldun bat, etxagun andia,
gazte dirutsua ta kristiñau garbia,
bizi zan bere etxean umezurtz ta bakar,
laguna nai ebala maite izateko alkar.

Gomuta eban bere aitak esaten eutsala
zaldun bat mundurako gizon erdi zala;
au ondo siñistuta zan bere gogoa,
lenbailen izateko bera bere osoa.

Ez yakan ondo egiten geure zaldunari
iñok ez esatea aitatu berari,
eta Markiña'n iñor, orain ez lenago,
ezta izaten bere aita baño gitxiago.

Apainduta gorputza, egun goiz batean
joan zan ardi-billa zaldien ganean;
arteztu eban zaldia damean etxera,
izateko beretzat mandatari bera."

Danak ezpabere, au eta geienak zortziko txikian idatzita daukoz, esan dogunaz giar, sakon eta gatz-ozpiñez gaiñezka, jarioka. Ederto idatzi eban bein B. Erkiaga'k: "Gure errikide onen jita eta joera ezagunena ta agirikoena gai errikoiak, bizitzako gora-beera ta eguneroko jazoerak, eta gizasemeen egitada onakaz batean euren emarrukeri ta egiune doillorak jakin-erazotea da. Orduantxe da zorrotzen eta begikoen aren luma bizkorra. Esaterako, medikubotikarioak, alperrak eta eskribauak eurak bere, ez yakaz lar atsegin. Bere aitarengandi entzun eta ikasi ete zituan lanbide orren kalteko esan, uste, asmakizun eta izkirimiriak eurrez?" (Olerki, 1961, I, 69 of.)

Bertso teknika aldetik zorrotz zaindu zitun legeak. Zortziko txikia geienbat, lau puntuko egin bearrean, bi bikotan lotzen dau. Atsegin jako amaieran be, soñutasun bereziaz azkena emotea, "bertsuaren izakera jatorrari zintzo eutsi nairik beti ere". Bizkaitar izkelgia darabil.

Batentin Berriotxo zori ondunak bertsoan idazten eutsan bere amari, Logroño'tik, Kadiz'tik, Manila'tik, Tonkin'etik... Leengo mendearen azkenerantza, lan ederra osotu eben Durango'n Garita-Onandia'k, Damaso Bernaolák, J. I. Arana jesuiteak eta Ramon Etxezarreta'k; laurok saiatu ziran prosaz eta itz-neurtuz. Bardin Eustakio Madina be.

Aurreko ta oraingo menderen artean, ankalatraba, Bizkaiko seme taldea daukagu: Arrese-Beitia, Etxeita, Txomin Agirre, Azkue, Arana-Goiri, Kirikiño, Gorgonio Renteria, Urkixo, Zirilo Arzubiaga... Arrese-Beitia, Etxeita, Arana-Gori, G. Renteria musa-saillera be txeratsu eldu ziran.

Olerkari lirikua dogu Arrese-Beitia. Zer ete dogu au? Alan naiz onan, norbere izate barruko sentiera ta biotz-zauskadak argitan jarrea, bakotxak bere barrumundua kantatzea. Eta au bakotxak egin oi dau berari ondoen dagokion lez, edo-ta modan dagoenez, "tinko naiz itzontzi, piko ta joeran". Arrese-gaitik esan oi dugu, bere garaiko seme zala. Eta nor ez? Beraz, poeta naiz idazle bati buruz eritxi emoterakoan, aurrenik poeta bizi izan zan giroko aizeak astintzea egoki be egoki litzakigu. Arrese-Beitia'ren egunetan, olerkariari barrua arrotzeko, jazokun bi daukaguz: politika aldetik, amaitu barria zala bigarren karlista gudatea eta poesi-joera aldetik orduantxe itzaliz joiala ainbat urtean, eta erreñutan, nagusi izan zan erromantizismua. Auzi biok agiri dira otxamdiotarraren kopletan.

Arrese'k, aroztegian bear egiten ebalarik be, olerki asko idatzi eban. Eta eurok ez ziran auts-artearen geratu, aldizkari ta egunkarietan, txeraz argitara emonak izan ziran. Liburu lez, oneik: "Ama Euskeriaren Liburu Kantaria" (Bilbao, 1900), 496 orrialde; "Asti-orduetako bertsozko lanak" (Bilbao, 1902); "Olerki Sortatxua" (Zornotza, 1930), 62 orrialde; "Olerkiak" (Zornotza, 1933), eta "Olerkiak" (Bilbo, 1956), 688 orrialde. Neuk egin neban argitalpen au, aurretik argitaratu liburuetatik eta beste aldizkari batzuetatik artutako lanakin; ia aren denak batu ta sortatu nituala uste neban. Baiña ez, geroago ikusi dodanez, oraindiño ba-ditu geiago, "Euskal-Erria"-n eta "Ibaizabal"-en batez be.

Bederatzi sailletan banatu nitun nik, Arrese'ren olerki-sorta gertatzerakoan: 1. **Kantu errikoiak**; 2. **Lirika kantuak**; 3. **Gora kantuak**; 4. **Amalaukoak**; 5. **Eliz kantuak**; 6. **Alegiak**; 7. **Ipuñak**; 8. **Irakurgaiak**, eta 9. **Erderatik euskeratuak**. Errikoiak ditu ederrenak, askoren eritxiz, lirikak be bere lira bereziari eragiñik, egiñak diran arren.

Arrese'k ba-dau irudimena, eta ba-dau biotzondoa. Eta izkuntza aberatsa. Biotz-suak bizkortuta osotu euskuzan olerkiak. Eta orduko trajeria abesten dau, foruak galtzea, euskeraren ilzoria, euskaldunen negar garratza. Eziñaren eziñak sor-azotako bertsoak dituzu aren lanik geienak. Iparragirre zein Arrese, erri-igarle bi ditugu; euren garaikoen naikari ta opa biziak koplak gartsuetan mamindu zituenak.

Irakur eizuz lau aapaldi oneik "Ama Euskeriari azken agurrak" deritxonetik aldatuta; zortziko nausitan dagoz:

"Zorigaiztoan negargarri ta
dot sentimentu andia,
geure lur maite dakustalako
gatzelatuta jarria;
bestela erdu, erdu ikustera,
Tubal euskeralaria,

baña ez dozu ezagutuko
orain zure jatorria.

Nun dira, bada, zure semiak,
Foru ta euskera zaliak?
Non dira, bada, Tubal, gure aita,
zure ondorengo garbiak?
Nun dira, bada, zure ume zintzo
eta leialen legiak?
Nun dira orain, orain negarrak,
nun dira nire begiak?

Agur illun bat egin deuskue
guraso zarren legiak,
umezurtz batzuk gelditu gara
billoxik Foru bagiak;
izan ba'giña eurak legetxe
euskieriaren zaliak,
oso ta garbi gordeko ziran
oitura ain miragarriak.

Zorioneko arkaitzak eta
zorioneko mendiak,
orain artean zuek zare izan
Foruen gordelariak;
zuek goietan beti euskaldun,
ez alan beien erriak,
orra zer gero ekarri deuskun
azkenian erderiak."

Eta amazazpigarren estrofan Gernika'ko Aritzera
doakioz begiak. Eta negar betean kantatzen:

"Eta nun dozuz, zeruko arbola,
zuk bere jantzi berdiak?
Zure erramok billox dakustaz
igar ta ezkur bagiak.
Ai mingarria! Gaztela'ko arrak
jan deutzuz sustrai guztiak,
baita biotza, baita barruak,
azala itxita bestiak."

Taiu onetakoak dozuz Arrese'ren kantak, errikoiak
eta lirikuak batez be, barru-miñak surtuak. Sentieraz
gaiñezka "Agur, ume", "Anjela", "Antxiñako denporea",
"Zoaz ondo, ama!" eta gaiñerakoak.

Ain goi-maillakoak ez ditugula be, bertso-lan politik
eundu euskuezan Jose Manuel Etxeita mundakarrak (be-
ronena bait da "Au, Ori ta Bestia" poema liburua; Txomin
Agirre, nobelari bikaiñak, arima neurritsua idazlanetan
erion ondarrutar zintzoak be olerki-mondoa dau; Arana-
Goiri goi-zale gartsu zanak koplak ederretan ustu eban
sarri bere izate urduria; Gorgonio M. Renteria elantxobe-
tarrak poesi asko argitaratu ebazan "Euskalzale", "Ibai-
zabal", "Euzkadi" ta Zornotza'ko "Ekin"-en: bere alaba
aspalditik dabil aitaren lan guztiak, prosazkoak eta bert-
sozkoak, batu ta sailkatzen liburu mardul bat osotzeko
asmotan.

Eta geure gezaldiaren lenengo amarnakoetara jauzi
egiñik, emen daukaguz "Otxolua" ta Enbeitarrak (Kepa ta
Imanol), Kepa gure urretxindorra, bertsolarien mailla

baño zerbait gorago daukaguna. Asko ta ederrak dira
aren kantak. "Gure Urretxindorra" liburuan batu nebazan
nik aren lanak osorik, or edo an, banakaren bat oindiño be
aurki leitekena izan ezik. Idazti mardul, aberats, joria,
"Euskal Literatura" (IV, 131 or.), onela idatzi neban nik:
"Gizon bezelan naiz bertsolari bezela, gaillena duzu
Enbeita. Ezta errez onen guztizko gizantza osatzea. Gizon
bezela, egia, jaiki lez errotsua zan. Bertsolari zanez, euskal
literaturaren pizkundean ba-du zer esana ta garrantzia
muxikar aundi onek. Beronen olerkia, azal ta mami, sakon
ederra bai dugu. Olerkia biotzetikoa da batez ere, ta
Enbeita biotz aundi baten jabe genduan, eta bere bizitzako
une oroz biotz orreri astiñaldiak emanez, txinpart-urtika
bizi izan zaiguna. Aren bertsoak, txinpart otsak, gogoz
entzun eta irakurri oi ziran: millaka ta millaka biotz utzi
zituen bere garaian zauskada sakonez eta esan-nai eztiz
arroturik".

Gizaldi onen lenengorantza, 1905'tik aurrera, erriz erri
asi zan aberri maitasuna ta erlejiñoa gartsu abesten. Leun-
du ta aziz joian adimenez eta barru-indarrez, ots, olerkari,
oleskari, mezulari, erri-oiulari egiñaz. Orretan asko lagun-
du eutsoen Jon Arrospide osagille jakintsuak eta Errente-
ria'tar Gorgoni itxas-gizonak. Olan ogei urtez gitxienez
bere soiñeko illun, alkondara zuri ta euskal txapel baltzaz,
Euskalerriko zokondo guztietan abestu eban. Bizkai'tik
urtenda, bere ibilladi garaitzazkoetan. Gipuzkoa, Napa-
rroa ta Araba'ko uri. erri ta auzunetan, an or emen bere
bere nagusitasunaren dirdai-izpirik samur gozoenak zabal-
erazo zituan; baita mugaz andikalderaiño be eldu zan,
Baiona, Ezpeleta, Donibane-Lohitzun, Donibane-Garazi
ta olakoetan be bertso-jardunaldi galantak egiñik.

Kepa Enebeita'k ez eban abestu bakarrik egin, baita
idatzi be. Orduko aldizkari ta izparringietan, euskal orri-
ren bat eukenetan beintzat, idatzi eban. "Ibaizabal", "La
Gaceta del Norte", "Aberri", "Euzkadi", "Euzkel-
Laguntza", "Euzkerea", "Karmen'go Argia", "Jaungoiko-
Zale", "Ekin", "Napartarra", "Eusko Olerkiak", eta
gaiñerako aldizkingietan agertzen dira aren lanak. Geienez
bere izen-abizenaz etozan, baiña bein edo bein "Txindo-
rra", "Karatz", "Pello" ta "Pello Mari" izen-ordeak be
erabili euskuzan.

Olerkari garbia dogu, txukuna ta zentzuduna. Arra-
noaren egazkada ebalako, ez genduan iñoiz lokatzartean
ikus. Berak atera ebazan aurretik ardagela illun loietan
bakarrik kantatzen ebenak eguratseko aize garbitara. Jain-
koa ta erria ebazan kantagai; gurean sortuak izan diran
gizon jakintsu, itxastar, kirolzale ta abar eredu lez begi
aurrean ipiñi euskuzan, baita amamak sukaldean erasi ta
erri-aotan bala-bala dabilizan alegi ta ipuiñak bertso biribi-
lletan kirimillatu be.

Beronen anai, Imanol be, euskal letretan "Uribarte'-
tar Ibon", poesi lan mordoaren jabe dogu. Eta onen artean
sailkatu geinkez Kepa Ormaetxea, au da, Aita Lontzi,
Bizente Etxezarraga, "Zidorra", Luis Gonzalez Etxabarri,
"Aizkibel", Paulo Zamarripa ta beste batzuk.

IV. GAURKO ELERTIAREN GIROA EDESTIZKO TA BARRU-MIÑEZKO OLERKI-SAILLEAN

Izadiak urtero ditu bere loraldiak, udabarrirantza asita dakigunez; neguan lo egondako zugatz-mota guztiak, zelai, mendi, solo ta baratzak ernemin agertzen jakuz. Aste batzuk aurrera, ta laster daukakegu garatze zabala.

Auzi bardiña olerkigintzan. Berrogetazortzi urte dirala izan genduan guda nabarmen aren aurretik, olaxe izan zan euskal literaturan, loraldi izugarria. Primo de Rivera ta Berenguer'en jauntzar-aldia amaitu zanean, lurpean kimetz ziran aziak erne ta zilduz itxaropentsu ikusi genduzan: euskal elertia, guztion pozetan, lora zoragarriz jantzi jakun. Geure izkuntza ikasi, aztertu ta arnas-barritu naia bizi-bizi ebillen orduko zaar eta gazteon artean. Guztiok, angoak eta emengoak, alkarren leian, alkarri lagunduz inardugun euskera saillean, urte gitxiren buruan zelako lorategi biurtu jakun euskal elertia!

Emen Bizkai aldeko lanari gagokiozala, prosaz naiz bertsoz, lendik ortan ebiltzanez gaiñ, zenbait idazle ta olerkari barri agertu jakuzan goizetik gabera. Egunez egun etozan euskal lan obe ta zentzundunagoek eguneroko ta aldizkarietan. Eta liburuak? Or Ibargutxi, Eguzkitza, Oar-Arteta bizkaitar prosalarien lanak; or olerkaritzan Maruri'tar Erramun (*Biotza abeslari, Lilitxingar*), or Gabriel Manterola (*Goi-izpiak*), Lontzi Aba, or Bingen Batiz, or Txanton Goiria, or Frantziako Atutxa (*Mugarra begiralari*), olerki-sorta ederren egille suar.

Baiña guztion artean leenengo sailla daroala, emen dogu Esteban Urkiaga, "Lauaxeta", Laukiniz'ko olerkari bipilla. Josulagunetan urte-pilloa egiñik, eta literatura klasikua ta oraingoa Durango'n, Loiola'n eta Oña'n ikasi ondoren, Bilbo'n daukagu 1929'tik "Euzkadi" egunero-koak eukan "Euzkal-Atalaren" zuzendari, "Orixe" zana-ren ondorengo eta Uribitarte'tar Ibon laguntzaille ebala, ain zuzen. Eta egia esan, Kirikiño'k bere garain lez, ez euskun lan txikarra osotu eusko-olerkari ta idazleen onerako. Or bere oarrak lenen, eta oraintsu ber-argitaraturiko "Azalpenak" gero.

Arima on eta sentikor baten jabe zan Lauaxeta. Itz lauz naiz bertsoz, idatzi eban guztia zentzunez eta gatzez beterik daukagu. Loiola'n egoala borobildu eban bere leenengo poesia, 1925'an, argitaratua beiñik-bein, J.B. Deya'n datorrena. Errenderi'n ospatu zan, 1930'an, "Euskaltzaleak" eraturako leenengo Olerti Eguna; an agiri jakun Lauaxeta Lizardi, Orixe ta enparauakaz batera, eta beronen "Maitale kutuna" izan zan leenengo saria —zidarezko aritz-adarra— eskuratu ebana.

Urrengo urtean emon euskun 143 orrialdeko poesi-liburu mardula "Bide-Barrijak" (Bilbo, 1931), euskeraz ta erderaz. J. Aitzol'ek, liburu onen itzaurrean: "Olerkariak ezilkortasun aiotsak entzun izan dituzte. Gure gazte onek ere dei orren oiartzuna neurtitzetan dagerkigu. Poesi goiargiak lagun bekio ezilkortasuna irixteko. Adi-ego-kiak ditu naikuna betetzeko. Euskerari, bide latza, leguntzeko, "Lauaxeta"-k dagiana, ez da lan makala. Bere "Bide Barrijak" goren, txalagarriak. Olerti-uts zelaietatik juan

bedi. Nekeak ez dezala auldu; ain da galgarria bide ori. Oraindiñokoan bulartsu darraikio. Ez bezaie, ordea, maitasun gaiei, minkuntasun asmo samurrei uko egin. Ain olerki politak egin dizkigu! Ain gogokoak ditut gaztaro asierako neurtitz oiek! Adi-poetsi eta maite-olerkiak ez ezik beste gun ederra dituen olerkitxoak aurki lezazkike irakurleak" (x or.). 42 olerki dira guztiz, maitasuna, aberria, Jainkoa kantatuz egiñak.

Andik lau urtera beste poesi-liburu bat, "Arrats-beran" (Bilbo, 1935), 162 orrialde, emon euskun. Berberak itzaurrean: "Ludi onen bestalde loratzen diran landa-raen usañak goxalde bakotzak dakarkidaz. Auxe da neure sakona! Bestiak entzuten eztaben egal-otsa neure gelara yatort eta berneko zugatz onaitatik txorijak aldatu zirana-rran, abar-dardarea ezta amaitu". Pirtxilleriak zirala uste eban olarkiok; baiña bide orretatik nai izan eban jokatu, bertso labur, sotil ta atsegiñak onduaz. "Arrats-beran" lako liburu mordoia egiteko asmotan ebillen. "Euzkadi"-n orrela argitara zituan alegi edo ipuintxo batzuek, egoki ta dotore egiñak, 1932'garren urtez batez be, **Izkiñuak**, erderazko **Letrillas** antzekoak.

Urkiaga berez olerkari jaioa dozu. Baiña ikasiz be, klasikoak irakurriz ez gitxi, eder-senaren gozotasuna beregandu eban. Irakurtean, espaiñar olerkariak albora itxi barik, Prantzia'koak atsegin jakozan, parnasoarrak batez be. Eta onei jarraiki osotu zituen "Bide Barrijak" liburuan datozen geienak. "Arrats-beran" ostera beste joera bat artu euskun, errez, arin, sakonagoa. Irakur eizu bat, "Muxurdiña" deritxona, eta beste guztiak be antzera eioak dituzu. Ona estrofa bi, leenengoa ta bigarrena, lelo ta guzti:

"Euki neban, euki antziña,
—a zan ezkontsari panpiña—
Tella bako etxia.
Euririk etzan egunetan
antxe bai nebala topetan
egizko aterpia.
Aren nayez eldu yatazan
senargai bi, bijak konkorrak.
Ardanetxeko zorrak
alan kentzeko esperantzan!

Aro zuri,
ardo gorri,
itunik yagokan matxurdin
poztu egik zurrut batekin.

Ardo gozoena edanik
zato batekin nintzalarik,
—ilgo al da betiko—
etorri yatan, bein, etorri,
mutil maingo, aurpegi-gorri,
nerekin ezkontzeko.
Maitasun zin asko egiñik
edan eustan zato gustija.
Ene ordi txarrija,
gero laga nindun bakarrik!

Ardo zuri,
ardo gorri,
itunik yagokan mutxurdin
poztu egik zurrut batekin".

Lauaxeta'k izan dauz omenaldiak, ez merezi beste baiña. Bat 1973'an egin geuntson emen, Larrea'n, Olerti-Egunez. Arratsaldeko batzarrean Luis Arostegi karmeldarrak lan gunez beterikoa irakurrir euskun Laukiniztarraren olerkiari buruz. Iru poesi-lurralde ikusten zituan Arostegi'k aren olerkietan: **maitasuna, gaztaroa ta igarokortasuna**.

Lenengo, poeta geienak lez maitasuna darabil Lau axeta'k be kantagai. Maitagar deritxogun jainko txikiak, bere gezi sarkor bigunez, giza-biotzak zauritzen ditu, eta zauriak poza ta negarra ekarten. Gure olerkariak ez dau nai maitasun leial-ezik, onakoa jostorratz zorrotz antzera sartu oi da barru-barruraino

ta dana irabia ta loitu: garbia ta leiala nai dau, "Maitale kutuna" abesten dauskun legez. "Lara baltzak —diño— edurtzan bildurgarria yataz".

Bigarren lurraldea gaztetasuna da. Lurralde zabalena bear bada, beste guztien erdi-erdia, aren poesiaren sorburua. "Maitasuna ta bizitza guztia gaztetasuna zear ikusten ditu", idazten dau Arostegi'k. "Gaste ule baltz gara", deadar Lauaxeta'k. Itxaropena, barriz, gaztaroari dagokion zabal-gunea. Goiak damotse bizi-kemena; argiak dakartse arnasa. Aberria ta askatasuna be gaztaroaren inguru dabiltzanak dira oroz gaiñetik. "Gaztedi orren didarra / bai dala didar zolija!", oi u olerkariak. "Dana emon bear yako / maita dan askatasunari".

Iruigarrena, igarokortasuna. Maite ditugun gauzak igesi doaz abiada aundiz. Au daroa gogoan —eta nok ez?— olerkariak. Beste gaiak be emendik artzen dabe, erdi-edegiz, euren poesi-mugagatasuna. Eta emen diño: izadiaren maite-bularrak ez dautsola kentzen barne daroan arantzearen miña, ezta barruan aginka dabilkion kezka nagusia.

Iru lurraldeok naste lez, aragitzen dauskuz Lauaxeta'k bere oler-lanak.

An ziran besteok be, ingurumari, goizala orreikin taldea osotu naita: Urkidi'tar Albontsa, Bizente Ametzaga, Benjamin Manterola, Jakoba Gerrika-Etxebarria (gazterik illak biok) eta beste batzuk. Musaen aizea puzka ebillen gurean, gozo ta indartsu. Izar eder bezela, baiña, Sabin Muniategi ta Eusebio Erkiaga jakuz punterengoak. Muniategi'k., gerora be ainbat poesi eder ondu dauskuzanak, itxasoak ondo zearkatu ostean, guda aurretxoan "Goiz-aize" (Bilbo, 1936) eta oraintsuagoa "Bidean gora" (Bilbo, 1970) opari lez egin dauskuz. Eta E. Erkiaga'k, guda aurretik idazle, bitartean "Eguna"-ren atontzaille ta ondoren olerkari, eten barik salatu ta euskal arloan lan egin dau, Bizkai Bankuko lantegilik be, ixillik baiña zintzo, beti gure lanari, prosaz eta bertsoz, lotua bizi izanik. Egoki li-

tzateke onen olerkiakin bilduma eder bat osotzea.

Ni be, naiz-ta apaltasunari grauskadaxoa egin, orduan asi nintzan olerkigintzan eta arrezkero ez dot ortik anka egin. Or argibidez "Milla Euskal Olerki Eder" (Zarautz, 1954), "Goiznabar" (Bilbo, 1970), olerki-bilduma, 1928-1950; or "Las cien mejores poesías de amar de la Literatura vasca", euskeraz ta erderaz; or "Oleriti" aldizkaria; "Gure Bertsolariak", Agirre-Saria irabazi ebana, ta abar.

Bego emen gaiñera olerkari zerrenda galant au be: Agustin Zubikarai, antzerkitan ez-eze olerkiz be asko idatzi dauana; Paulin Solozabal, sei-zazpi poesi-libururen egille xalo; Grabieli Aresti, ez ekian euskera ikasi ta poesi soziala bertso bipillez jantzi ebana; bardin Luis Arostegi gatikarra. "Poema amaitu bakoak" osotu euskuna, eta Gallastegi'tar Kauldi, "Zer" aldizkarian olerki politikak damoskuzana; Juan Anjel Etxebarria, España'ko, Frantzia'ko ta Katalunya'ko olerkari askoren lanak euskeraz argitaratu dituna; Biktorian Gondiaga, frantziskotarra, Arantzazu'ko egoitza gozotik olerki-lanak ugari, "Elorri",

"Iru gizon bakarka" ta besteak mamindu dauskuzana; Afonso Irigoien, Euskalari ta poeta, "Sorterriaren alde" ta "Herrian gara bi" liburuan egille; Martzel Andrinua, azken urteotan "Kezkaz" poesi-liburua eratu dauena; Pedro Anasagasti bermeoarrak, "Olatuak" bertso-idaztia eskiñi dautzu; Nikolas Altzola, "Makue", koplak bitxiak ez gitxi eioa; Antonio Bilbao, morgarra, "Lizardi Saria" irabazi ta oraintsu "Pentsakizunak" liburuxka argitara emon dauskuna; Fermin Iraolagoitia pasiotarrak, iru ingurrazti daukaz irarkolarako gertu; Lorentzo Zugazaga, Gamitz'ko semeak, olerki txanbeliñak antolatu ditu; Mikel Zarate, oraintsu illak, beti kezkatu, itz askatu ta lotuan idatzi euskun; Jon Enbaita, bertsolari ta olerkari, poesi liburu ñimiño baten egille; Manuel Ertzilla, Atxondo ibarreko semeak, poema bat emon dauku "Hitzik aintz idatzi dut" izenarekin; Abel Muniategi, Ereño'ko semeak, or-emengo aldizkarietan oler-lan politik emon ditu; Jesus Antonio Etxezarraga, bilbotarra, 1977'an "Lauaxeta"-ri egiñiko omenaldian, poesi-batzaldian, leenengo saria jaso ebana.

Ba-ditugu oraindik beste bi be, bizkaitar olerkariak, aiatu bearrekoak: J. Kerexeta eta Balendin Aurre-Apraiz, a elorriotarra ta au Axangiztarra. Biok koplari onak. Kerexeta'k iru poesi liburu daukaz: "Orbelak", "Bitargi" ta "Udazken". Orain lau urte, 1980'an, irurok batean argitaratuak. Poeta sakon, errez, ezta. Irakur:

"Jo danbadak, odeiok, gaurko sargoritan; eta, bitartean, itzi naizue baketan!	ta otzitu nadin zure zurrunbilloetan!
Busti nagizu, laiño, uda-arrats onetan; sar zakidaz, leunki, izatearen muiñean.	Gaur ez dot lagunkide nire gogokoa; entzun daidan, beraz, barruko mintzo gozoa.
Egin orro, aizebaltz, areizti ondoan;	Eta Izadi-erdian nagoan er-tean, gaur beintzat, Maiteder, itzi nagizu bakean!"

Eta Aurre-Apraiz? Egiatzko olerkari niretzat. Lur-langille ta poeta. Olerki sakon, sendoak, ardao urtez ondu baten antzekoak, argitaltzen dauskuz or-emengo aldizkarietan. Asko daki ederrari buruz, orrela agertzen bait jaku Larran urtero eratzten doguzan Oleriti-Egunetan. Arima eder baten jabe danez gero, errez jako ederraren muiña jaso ta iragartea. Bere etxe zuri errezeko solo ta bazterretan dakusana, orixe dau geienbat kantagai.

"Udabarria bai-dator alai-alai!
aterako aal daust biotzeko dardai.

Zidor ertzeetako lora apaiñen lurrin;
gozatu eizue eme, zaurien samin.

baso ixilletako latsaren eresi:
zakit atsekabeentzat aienagarri".

diño "Alaitu guraz" deritxon lantxoan. Atsegingarri jako uneoro barruko kezka kanpoko bake ixillari autortzea.

Eta azkenez, Luis Baraiazarra, aurtan "Lizardi Saria" eskuratu dauskuna. Ezta euskal literatura ortzian agotik sudurrera agertutako izarra; "Karmel" aldizkarian naiko idatzia dogu, eta poesi-saillean, leendik be, Gabonetan eta,

Markiña'ko umetxoentzat olerkitxoetan saiaturia dala, azken-urteotan or-emengo sariketataratu aurkeztu izan da. Ots, 1980'en "Lauaxeta Saria"n esku artu eban olerkari lez, Laukiz'en. Arrezkero, Iparragirre'ren mende-urrunean leenengo saria lortu eban, 1982'an Ondarru'ko Lore Jokuetan bigarren saria eta igaz Markiña'ko Lore-Jokeutan be irabazle. "Bakardadeko Bertso Ezpalak" dabe izena saritutako oler-lanak, amairu guztira. Azken uiola, gelako bakartasuna, bizia, maitasuna, eriotza, poza, ituna ta abar kantatzen ditu arin, nasa ta gozo.

Irakur eizuz uiolaz egiñiko zati biok:

"Euria, tximista, trumoaia,
betoskoz jantzirik da goia,
zeru-zola burrunbadaka
tximista-geziz grakadaka.
Bestetako oihal urdina
herio mehatxuz gordiña,
milaka zatitan urratuz
goiak behean hots amorraturuz.

Dena ezinaren ezina
ondamendiaren samina,
urek dena trumilka bilduz
lur-zintzurretarik amilduz,
guztia hautsiz atzaparka,
hor zehar utziz lokatz-marka...
horra tristurazko trixkantz!
Badu honek gerraren antza".

Euskera jatorrean, pentsamentuak eta biotz-zirrarak maisuki lotuz, diardu Meñaka'ko olerkari koroituak.

Azken-itzez, baiña, ez dagigun aantz-zulo itxi azken orduko krikari poeta bat be. Euskal poesiari buruz asko ta ederto idatzi dauan J. M. Leizaola'k dakarsku berau "A-contecimientos del siglo XX en poetas euskéricos" deritxon lanean (**Obras Completas**, Donostia, 1981, 2'garren alea, 618 or).

Bost kronika dira JEL-ORDE'k izenpetuta. Ba-ditu beste bi be, Lekeitiar Karlos Solano'ri bere eriotzan eskiñia ta "Euzkeria da gure ikuntza bakarra" daritxona, Paris'eko "Euzko-Deya"-n agertu ziranak zazpirok. Ez dakigu nor dan kronikalari au; baiña Bizkai'ko baserri baten, 1890'an jaiola dala diñosku Leizaola'k, gerran ibilitakao ta mugaz bestealdera joana.

Bost jazokun-olerkiok onela dozuz: 1) **Guda olerkijak**, 12 zortziko nausi; 2) **Olerkijak Ingelandar eta Amerika'ren omenez**, 12 zortziko nausi; 3) **Hitler'ari olerkijak**, 12 zortziko nausi, amabi bertso-lerrotan idatzita; 4) **JEL-ORDE'n olerkijak ango adiskide onai**, 6 zortziko nausi; 5) **Franko'ren amar aginduak**, 12 zortziko nausi, amabi bertso-lerrotan emonda.

Erri euskera garbi ariñean idazten dau Jel-Orde'k. Ez da liriku bat, baiña jazotako gauzak xotil azaltzen dituna. Berak ikusi ta jasandako gauzak edesten daukuz, bera egille dala orain eta artzaille dala gero, "atera giñan" eta abar daragoio. Idazkera onek, au da, leenengo ta irugarren pertsona erabilde onek jasa, eragiña ezarten dautso olerkianari. Ausnar estrofa biok, "Guda olerkitik" artuta:

"Euzkel-erriak ezpaleu ixan
guda onetan parterik
neure ustian etzan ixango
ezetariko kalterik.
Aberritarren aurka zan,
etzan geuretzat bakerik,
naitezian atera giñan
etzegon beste tarterik.

Egazkiñakaz etorri eta
Gernika dana apurtu
emen bonbakaz sua emonik
erre ta ikatz bigurtu.
Basatikeri ori egiñaz
jente guztija bildurtu,
etzerritarrok aspaldi ziren
ori egiteko gertu".

* * *

Utsune ta akatsak gorabera, auxe dogu Bizkaiko poesi-elertiaren aztarna. Ez diñot ugari-ugaria danik, ezta urria be, bai bien arteko. Daukaguna, gure aurretikoak itxi daukuena ikasi, aztertu ta duindu bearrean gagozala, nik esango neuke. Ortxe dago gure euskal arnasa, edestizko gure olerki bizietan eta euskaldunok barru-miñetan emon ditugun frutuak diran koplak gartsu egokiro taiutuetan. Gorde ta ugaritu daigun geure eltxor baliotsua.

AITA ONAINDIA

KANADA

Irail ontan maiz mintzatuko dira Kanada'z izparringiek eta irratiek, an auteskundeak egin-berriak diralako, eta Aitasantua aruntz joateko asmotan dagoalako. Nik, auteskundeei-buruz gura neuke gaur Kanada ikertu.

Lurralde aundia Amerika'ren ipar-iparrean dagoan Kanada. Sobiet Alkartearen ostean munduko Laterririk aundiena, bere 9.976.185 kilometro laukoekin. Sorkaldetik Sarkaldera, 6.435 kilometro luze da Kanada, eta Egotik Iparrera, 4.825 kilometro zabal.

Baiña neurri galant oien barruan ez da jende askorik bizi: 24 milloi, eta oietatik, % 90 Egoko mugatik gora 320 kilometroen barruan. Izotza da-ba ortik gorantz nagusi.

Jende oiek, batzuk, geienak, inglanderriarrak dira jatorriz eta inglanderaz mintzatzen diranak; besteak, Kebek deritzan probintzikoak, frantziarrak, bai jatorriz bai izkuntzez.

Amar Probintzizko konfederapen edo alkarte bat da Kanada. Askatasun aundia du probintzi bakoitzak; Euzkadi'ri Espaini'ko eman dautson autonomiakoa baiño milla aldiz aundiagoa.

* * *

Noruega'tik normandarrak eta Bizkai-Gipuzko-Laburdi'tik euskotarrak izan ziran, Kolon Ameriketara baiño azkoz leenago, Kanada'ko itxas-ertzetara iritxi ziranak. Ala ere, Kanada'ren aurkitzailletzat John Cabot, Inglanderriaren serbitzura zebillen Giobanni Caboto italiarra, izan oi da ipiñia.

Frantzi izan zan lur ura beretzat artu ebana, 1534'an Jacques Cartier'en bidez, eta 1603'an bertan lanean asi zan Samuel Champlin'en bidez. Baiña oso jende gutxi joan zan Frantzi'tik ará: XVII mendean 2.500 besterik ez ziran bizi itxasotik Montreal bitartean. Andik aruntz, iñor ez, inditarrak izan ezik.

XVIII mendean asi zan suspertzen Frantzi'ren koloni ura. Orduantxe, ordea, Frantzi'k Inglanderriarekin izan

zitan guda guztietan sarturik ibilli zan, 1757'an Inglanderriaren eskuetara jausi zan arte.

Gaur Laterri Alkartu diran koloniak askatasuna borrokan lortu ebenean, argi ikusi eban Inglanderriak, Kanada'k ere iges egingo eutsala, eta, ori eragozteko, burujabetasun osoa eman eutsan.

Gaur Kanada'k, naiz bere Erregea Inglanderrikoa bere izan, askatasun osoa dau. Espaini'k indarrez Lege zarra kendu euskun artean Euzkadi'ko Laterriek, naiz beren erregea Espaini'ko bera izan, eben askatasun bera.

* * *

Bi gauza erakusten daukuz, auteskundeak' dirala-ta, Kanada'k euskotarroi.

—Etsaienganako begirunea. Auteskundeak amaituta bi ordu baiño leenago John Turner liberalak, pozik ematen eutsazan zorionak, eta laguntza eskeiñi, Brian Mulroney kontserbazaille irabazleari.

—Ekonomiaren garrantzia. Izugarria izan da liberalen ondamena. 20 urte egon dira agintzen, eta 20 oietatik 17'an, Pierre Elliot Trudeau kebekarra izan da lendakari; aurtarkiak, eta emakumeak, bereganantzeko ekarmen bereiziko gizona. Orain, ordea, zero menderatuak izan dira, 288 diputadu esertoki dauzan parlamentu baterako 211 kontserbatzaillek irabazi bait dabez.

Kebek'en, Trudeau'ren probintzian, 19 bakarrik lortu dabez liberalek. Kontserbatzaillek, 591. Zergaitik? Ekonomiaren ibillera okerregaitik.

Liberalek agindu daben denboran % 12'raiño igo da lanik gabe dagozen langilleen kopurua, ta beren abetzale-tasuna ere aztu dabe kebetarrek, lanik-eza ortatik irteteko

Euzkadi'n gero eta aundiagoa dogu lanaren falta. Ez dagigun aztu abertzaletasun guztiak baiño garrantzitsua-goko gauza dala egunero-jan-bearra, eta goseak ez daula errietan iñoiz ere gauza onik ekarri.

LATIEGI'TAR BIXENTE

TXABI TA TXIBI

(“Kili-Kili” aldizkaritik artu eta umeentzat antzezteko egokitua. Edonork, edonun eta edonoiz antzezteko egiña. Baiña ez edozelan: polito, gatz eta piperraz!)

Antzezlariak, antzeztokira urteten diranez:

TXIBI txakurra: ume bat txakur jantzita. Besterik ez badauka (buztan edo belarririk edo), naiko izango dau samatik ugel bat ipiñi ta “lau anketan” ibiltea.

TXABI.—“Txibi” txakurra egiten dauan umea baiño mutiko aundiago bat.

AITA.—Txabi’ren aita.

AMA.—Txabi’ren ama.

Txibi, aurrean ontzikada bat jateko dauala mukerka dago, negar-ausiak egiten.

TXABI’k (agertuaz, TXIBI’ri): Oindiño olan?...

TXIBI’k.—Ez, zelan ba?...

TXABI’k.—Ez dozu jan gura?

TXIBI’k.—EZ! EZ! Eta Eeez!...

TXABI’k.—Ederto! Oraintxe ikusiko dozu ba!

TXIBI’k.—Ikusi zer?

TXABI’k.—Aita! Asi da au gaur ere koplak egiten. Ez dau gura jan!...

TXIBI’k.—Koplak zera! Jan zeuk gura badozu! Zeuretzat!

AITAK.—(Agertuaz) Kopla larregiak dira orrek!

TXIBI’k.—Bai, koplak dirala esan oindiño!

AITAK.—Lotsa emon bear jako lotsagaldu orri. Neuk irakatsiko dausat lotsa nori dautson zer! Txibi, jateko esan dautsut...!

TXIBI’k.—Eta niri zer! Eta niri zer!

AITAK.—Bestela ez dozu... ez okelarik, ezta ere posrerrik izango! Ez dozu etxetik urtengo...

TXABI’k.—... ez eta telebistarik ikusiko nigaz! Ementxe barruan bakarrik egon bearko dozu beti! Jolas egin barik eta ilunetan!

TXIBI’k.—EZ! Ez! Eta ezetz esan dot!

AITAK.—Ia, azkenengoz: Iru kontatu orduko! Bat... Bi... IRU...!

AMAK.—(Agertuaz) Itxaron, itxaron! Gura ez badau, zergaitik jango dau ba? (esanaz, txakurraren jateko ontzia eroan egingo dau).

AITAK.—(Minduta) Baiña... zer egiten dozu? Nire aginpide ta nagusitza agertzerakoan... ba zatoz... eta beste barik...

TXABI’k.—(Arrituta eta minduta). Nik, gura ez arren jan egin bear izaten dot beti!...

AMAK.—(Urrinetik, deika, deadarrez): Janaria ederra eta duan... auzoko txakur guztientzako!... Baita katuentzako ere nai badabe!

TXIBI’k.—Kaii! Uau, Uau! (Salto egin eta arrapaladan joanda, niam, dranga, dzist eta zaust, drak-drak iruntsi egiten dau jatekoa: Ontzia garbi-garbi itzi. Aita ta Txabi arri ta zur eginda, ago-zabalik begira geratzen dira).

AIT.—Olangorik!... Beste orrenbeste!...

TXABI’k.—Ai ba!... Ene ama!...

AMAK.—(Besoak gurutzatu eta aita-emeai begirtuaz): Zuek, gizonok, dana dakizuelakotan... munduko sikologiarik ezer ez dakizue!...

TXABI’k.—Aita: zer da munduko sikologia?

AITAK.—Ba, etxeko andralogia edo...

TXABI’k.—Eta amak, zer dala ta, zergaitik diño, munduko sikologiarik ez dakigula gizonok?...

AITAK.—Ba, txakurlogiarik ez dakigulako edo...

TXABI’k.—Ama! Zer da...

AMAK.—(Urrinetik)... Urrengoan! Ez daukat astirik! Zure praka barriak garbitu bear ditut!

TXABI’k.—... zertarako? ...

AMAK.—Atarako! !Atako!!!...

**MAITENA’K ANTZEZTEKO
EGOKITUA**

BERMEO'TARRAI!

Aita Madariaga'ren idazkaia
Epaila (martija) 1922
Arantzazu'n

—Nongue zaran yakin leike? Itan-
dutie be ezta ondo baye!

—Ni Bermio'kue jaune. Beori non-
gue da ba?

—Ni "Pilatos'en errikue".

—Eee! Orduen Bermio'kue da beori
be!

—Orduen Bermio "Pilatos'en erri-
je"da.

—Eee... ori be esan!

.....

Arrezkero sarritan egin dot neure
artean: Nondik ete jatorko Bermeo'ri
"Pilatos'en erri" ez-izena?

Jesus'en epailari maltzur, epela ber-
meotarra izan zan ala? Bermeo txu-
kuna, Bermeo kutuna, Bizkai'ko uri
bikaiña, Kantauri-itxabaster politena,
Pilatos'n aberria? Au onelan izan lei-
kela gogoratzeak bakarrik min egiten
eustan biotzean eta gai onetan egia
zer zan eta zer etzan yakiteko asmoz
itaundu dautset agure zar, gizon zin-
tzo, egi-zale askori ia ezer ete-ekien,
eta ona emen zarrak diñoena: Orain-
diño denpora asko ezala, gaur astu-
ten asi ba'da be, Bermeo'n ta bere
auzo-errietan agotik belarrira, belarri-
tik agora ibilli izan dan ipuin antzeko
edesti zarra.

Antxiña, Erroma ta Euskalerra
bitarteko gerratean Bermeo aukeratu
ei eben itxaso nai lureko gudarien bil-
gune edo kanpamentu izateko eta
eurak bear zituezan gañerako tresna-
tokitzat. Ara eldu ei ziran ikaragarriz-
ko soldadu pilloak eta beste askoren
artean baita Ponzio Pilato, gerotxua-
go Judean gobernadore izan zana be.

Pilato bertako neskatil —Procula
Mentxaka izenez— argi, lirain polita-
ten edertasunak biotzean ikutu ta
ezeieban bakerik izan arik eta bere
emazte egin arte. Gero an, portu
ganean "Torronterun" dagoan etxe
aundi zabalean edo bere albotxoan
bizi eiziran.

Auxe da zarrak diñoena. Baña egia
ete da?

Bermeo antxiña antxiñakoa dana
badakigu edeslari guztiak batera
autortzen daben ezker. (Garibai
Libr. 7, cap. 10; Henao Libr. 1, cap.
37).

* * *

Torronteruko etxe zar ori be, bere
orma ondo baltzituakaz, bere arri
mailluak eta trintxeak baño urteak
obeto launduakaz zar-zarra dana agi-
rian dago Eta Ertzilla bermeotar idaz-
le ospetsuak bere etxe izandako one-
gaitik esan eban:

Mira a Bermeo cercado de maleza,
Cabeza de Vizcaya, y sobre el puerto
los anchos muros del Solar de Ercilla
Solar antes fundado que la Villa (1).

Onelan eta guztiz be ezin esan leike
etxe ori orren zarra danik. Orduan,
Pilato eta Mentxaka'ren denporan
etzegoan aurki Bermeo'n arrizko
etxerik eta Torronterukoaren itxurea
begiratu ezker amabostgarren giza-
ditik onantzakoa dirudi. Onegaitik ba
izatekotan be, inguru aretan egon zan
beste etxeren bat izan alzan Pilato ta
Mentxakarena.

Baiña zelan izan leikean eusko-
alaba ori garai artan, murruka-aldirik
bizienean atzerritar arerio batekin
eskontzea? Auxe ezta erraz igarten.
Itandu dautsadan batek gaztaroan

latin ikasia bera, esan eustan: Bear
bada Pilato'k ostu egin eban Mentxa-
ka neskatil gaixoa, eta gero, beragaz
eroan ebanean, berak imiñi aleutsan
Procula latiñezko izena, euskeraz
asaokoa, urrutikoa esan gura dauana.
Bai ba, Bermeo'tik Erroma'ra San
Migel Auzora baño apur bat bide
geiago dago ta...

Pilato'k Mentxaka neskatil gaixoa
ostutea tira, ari izan leikean orraitio,
baña Procula **asaokoa** ezta. Procula
izenak bere aita **Proco** izan zala csan
gura dau, besterik ez, **Tuliola** Cice-
ron'en alabaren izenak bere aita **Tulio**
Cicero zala esan gura daualez.

Bermeo'ko komentuan luzaro bizi
izan dan praille zar batek Aita Uriarte
Euskal-idazle lenenari entzuna da
Procula Mentxaka'ren izena.

Dana dala Pilato'ren emazte ori
bermeotarra izateak bere egi-antza
dauko, eta ango beaztopa bat edo
bigaitik guzurrea danik ezin esan lei.

Eta orain euskaldun-alaba ori gen-
til gaizto, fede-bakoaren emaztea iza-
teaz min artzen dabenak gogoratu
beie atsegiñez Mentxaka'k Jesus
Kurtzeko eriotzatik askatutearren
egin zituan alegiñak. Ona emen San
Mateo Ebangelariak (XXVII, 19)
diñoa: "Eta (Pilato) auzi-aurkian
yesarririk egoala bialdu eutsan bere
emazteak esatera: Eztaukazula zeri-
kusirik errubako orrekin; gaur berori
dala ta ezala asko igaro bear izan dot
amesetan". Jaungoikuak amesetan
iragarri izan ditu bein baño geiagotan
erlegiñoko egi asko, ta bermeotar
emakume zintzoari Jesus gure Salba-
gillea errubakoa zala amesetan iraga-
rri eutsan; eta Jaunaren argiari eran-
tzunaz al izan eban guztia egin eban
arek bere gizonak okerreko epairik ez
emotearren. Bezte liburu zar batean
(2) irakurri dot Proculak Jesus'en

erlegiñua egizkotzat artu ta bere agin-
dupean bizi ta iraun ebalá, ta azkenik
Pilato bera be kristiñau egin eta biak
Jaunaren besoetan il zirala.

Bai, bermeotarrak alantxe beti.
Aita Uriarte beraren esakuna edo
berak nonbait ikusia eida: **Bermeani
neque veraces, neque constantes,
neque divites;** erdi-zoroak dirala be
iñoiz entzun dot, baiña erlegiño-
arazoetan bermeotarralakorik gitxi:
zintzoak, biotz samur, zabal, on-
onekuak dira.

Jesus gure Jaunaren Nekaldirako
daben berarizko onerazpena nondik
artu daben eneuke esango. Ikusgarria
izaten da beiñik bein Erramu egun
arratsaldean komentuko eleizan, eta
eguen-bariku gureneta eleizarik-
eleiza Kalbario-Bideak egiten ibilten
dan gentea. Kalbario-Bide orreik iñon
ikusí eztodazan moduan egiten dira

antxe bariku gurenean. Goizian goiz
yagi —eleizan gau guztia igaro
eztabenak-eta txalupa bakoitxeko
mutillak akarregaz batu, ta patroia
edo ondotoxen irakurten dakian bat
buru dala, yoaten dira Aita Kurtzioko
eleizara. An batek irakurri ta errezau,
besteak erantzuten dabela, Kalbario-
Bideak egiten dituez eta gero Kurtze
santua adorau ta komentura joaten
dira. An be bardin egin eta portuko
eleizara —Santa Fimi edo Santa Eufe-
mia'ra— aldik Andra Mari'ra. Eta
onela eleiza guztietan Kurtze-Bidea
egiten dabe, sortzirak inguruan Andra
Mari'an eleizkizunak asten diraneko.
Onelako gauzak umeak eta emaku-
meak egitea ondo da, ta egiten be
gizonezkoak baño gitxiago eztirala
esan bearrik eztago. Bermeo'ko ala-
bak ezagun izaten dabe Procula
Mentxaka'ren aitzak direana. Baiña

egun aretan Bermeo'ko eleizetan ikusi
oi diran gizon ta mutil gazte moros-
kak ta erresuakaz ateraten daben
muru-muru gozoa atsegingarria
danik ezin ukatu leike.

ANAI MADARIAGA

(1) Apud Henao l.c. Eztatik non irakurri
zituan Jesuita yakintsuak olerki oneik. Nik
daukodan "La Araucana"n-Madrid, Gaspar y
Roig 1852 —beste modu batera dago—. Begi-
ra: Canto XXVII

"Ves a Vermeo cercado de maleza
Cabeza y primer tronco de esta rama (de Viz-
caya)
y tu torre de Ercilla sobre el puerto
de las montañas altas encubierto"

(2) Paradosis Pilati.

EKOLOJI ETXERATUA

Garamendi'tar Sabino, gizon on, nire lagun zintzoa, Zornotza Amorebietakoa da. "Zer" aldizkari onen irakurleak jakin begie Zornotza'ko Udaletxea lurraren, luze-zabalean Bizkai'ko andienetariko dala. 18 edo 19 baserri ei-daukoz. Aitatu dogun Sabino Euba'ko basetxe baten bizi da. Euskal izen polit bat dauko: Arkoiti. Euskotar baserri bizitoki jatorra: gustiz egokia. Beian, suetea ta kortak. Goiko mailla zabala, ederra, garbia, iru edo lau, logela, garbi gela (bañue) ta irola. Gorago, kamarea, barazkiak ta abereentzako bedarra legortu daitezana. Etxea andia da, ta berton, sendi-famili bi bizi dira, guztiz ondo atondu ta alkar ikusiaz, euskal kristiñauai dagokienez.

Sendi biak landa, solo ta larrak inguruan daukiez. Bata, kortea abereakaz, lugintza bearretan arduratzen da. Nire adiskide Sabino Arostegi txikitxua oraingo tresna batzuekaz ibiltan da Lantokiko orduak izten deutsoenean, gustiz trebe, artetsu, esku-onekoa, izanez burura etorriayako asmoa egaztientzat ollotegi begiragarria egitea etxe ondoan, ekoloji jarraibidea emoteko. Zapatu arrastegia zan, eta bere aroztegiari neuri etxoiten, ori egiteko berbaturik gengoan eta.

Sabino, lagun, kaixo, oraingoan beintzat zori ona euki, dot noz edo noz etorri izan bearko zan. Ez

arduratu, gure arazoa amaituko dogu aldi asko egin barik.

An, gu bion artean, egoan auzoko gizon bat niri esaten: —Oneik periodistak edo etxakiat zertzuk dozaken... niretzat barritsu batzuk, asko geiago ez! !Eta nik erantzun. E! kontuz, gizon, ez zaitez izan eskertzarreko! Gu zeregin onetan gabitz euri eta zu languai Euskerea aitzu ez dakizuen! Gero Sabino'k esan eustan: "Zer gura dozu jakin nigandik, ba?"

—Zelan etorri yatzun ollotegi au egiteko? asmoa...

—Lantokiko lanak amaitu ostean ta zapatuetan ordu asko dira —badakizu— eta beti ez egotearren ardaundegian. Eta egurrola ta tresna batzuk daukodaz eta emen ainbat leku dagonez, zeozer egin bear.

—Buruan darabilt, lagun on, zuk zeuk ezbaseunke be lanik lantokian, zure eskuetako trebesunez bizimodua aterako zeuke. Orain esaten dana **brikolaje** lanak egiteko gauza zara. Ikusi dot egin dozun etxe osteko ollotegia, ta erdian zugatz bat edo bi ipiñi dozuz, ziur olloak pozago egon ta ibilli daitezana. Ori bai dala ekolojiaren alde izan ta egitea! Eta olloak egaztiak dirala ta, egaz be batzuetan badakie egiten be bai. Igongo dabe zugatzen ganera, ezta?

—Bai ori, ta askotan urten ollotegitik alboko larrara. Egaztien

oitura au ikusita geuk atea idegiten deutsegu, aukeramena emonda ollotegi barruan edo landa zearka ibilteko. Baiña pozago dabiltz zelaietan barruan baiña. Zegaitik izango ete da izaki guztiak gurago dabela aske egon ta ibiltea lotuta egon barik orma, burni-sare artean? ...

Egurrolatik urten ta eldu giñean suetera. An egoan etxeko andrea, euskalduna, osasuntsua; mosugorri ta andre ona.

Sabino'ren irudi eder bat euken orman ezarrita.

Nik andra-gizon biai itaundu neutsen: Baiña orain Garaikoe-txearena ipinten dabe ta zuek zegaitik ez?

—Guk jator izateak aginduten deuskuna. Sabino Arana Goiri'k gura eban Euzkadi Alkartua, eskualdeak euren buru-jabe egonez, Suiza'ko kantoi'en antzera.

—Baita ta ikusten dot teleikusizun tresna eder bat be ba deukozuela. Oraingoa izanez, beragaz ikusiko dozuez Euskal Telebisaren egitamuak?

—Ez guk Telebista orren euske-rea eztoqu ulertuten, eta saminduta gagoz Jaurlaritzak egiten deuskuna: geienez geure dirua erabili ta guri ez emon Bizkaieraz. Denganiñozko arpegi gogorra daukie euki be! Latiegi'tar On Bizente'k arrazoi andiaz esan dautso Etxenike'ri: "Bizkaitarraren diruarekin Bizkaiera ilten diarduzu".

EGILUZE'K

EUSKALERRIAN EUSKERAZ

EUSKERAZALEAK
1984-85 IKASTAROA

AMAZAZPIGARRENA

BIZKAIERAZ

IRU MAILLA ETA ALKARRIZKETA

EGUNAK: ASTELEN, EGUASTEN ETA BARIKUETAN

EDO ASTEARTE ETA EGUENETAN

ORDUAK: GOIZ, ARRATSALDE ETA GABETAN

ORDANA: 7.000 peseta.

IZENA EMOTeko-TOKIA: EUSKERAZALEAK

COLON DE LARREATEGI, 14-2

BILBO.

URRUZTIZKIA 423.53.22

BIZKAIAERARENTZAT

Bizkaiera!
Oi anaia zarra!
Umearen poza,
Biotzaren miña,
Zeruko izarra,
Bizkai'tarren abotsa!

* * *

Bizkaiera!
Goizearen eresia,
Illunaren argia,
Askatasunaren bidea,
Negarra ta bizia!

Bizkaiera!
Urte asko isillik,
Ondamenditik berbizturik,
Bat-batean itxaropena biurturik
Gure errian!

* * *

Gora! bizi zaitetz
Ekaitz-erdian zutik!
Zu iltzen ba'zara,
Bizkai'tarrok nola bizi?

JOSEBA ERRAMUN'EK

ABEREAK ALKARTASUN BARRIAN (1)

(Lei = Leizarraga, 1571; Duv = Duvoisin, 1865;
Ol = Olabide, 1958; E-B = Euskal-Biblia, 1976)

Animal (Pedro'ren 2.^a, 2, 12)

Pero éstos, como *animales* irracionales.

Lei: Baina hauk, *animal* brutal... bezala. (Baita *abre* be: *abrén* gorputzak: Ebertarrai 13, 11).

Duv: Bainan haukiak, adimendugabeko *abere* batzu iduri.

OL: Orrako oriek, berriz, *abere* adingabeak bezela.

E-B: Orrelako orreik, barriz, *abere* adimen-bageak lez.

Animal salvaje (Markos 1, 13)

Estaba entre los *animales* del campo.

Lei: eta zen *bassa bestiekin*.

Duv. eta bizi zen *basabereekin*.

Ol. basoan egon zan *iiziekin*.

E-B: Basoko *abereen* artean egoan.

Cuadrúpedo, eta Bestia (Apostoluen Egiñak 11, 6)

y vi (en él) los *cuadrúpedos* de la tierra, las *bestias*...

Lei: eta ikus nezan lurreko *animal laur oindunetarik*, eta *bassa bestietarik*.

Duv: eta ikusi izan nituen *lau atzetako aziendak*, eta lurreko *basabereak*.

Ol: ta lurreko *lauroin*, *iize*.

E-B: lurreko *lau-oiñeko abere*, *pizti*.

Fiera (Agerpena 6,8)

Se les dio poder... para matar con la espada, con el hambre, con la peste y con las *fieras* de la tierra.

Lei: eta haey eman zekién... hiltzeko ezpataz, eta gossetez, eta heriotzez, eta lurreko *bassa bestiés*.

Dubv: eta esku eman zitzayoén... hiltzeko ezpataz, eta gossetez, eta heldez, eta lurreko *basabereez*.

Ol: ta al izatea eman zioten... ezpataz gosez, izurriz ta lurreko *basapiztiz* iltzeko.

E-B: Eta ezpataz, gosez, izurriz eta lurreko *basapistiz* ilteko aal-izatea emon izan yaken.

León (Pedro'ren 1.^a, 5, 8)

Vuestro adversario, el Diablo, ronda como *león* rugiente.

Lei: etsay deabrua, *lehoin* marrumalari bat bezala.

Duv: deabrua, zuen etsaya, *lehoina* orroaz bezala.

Ol: *leoya* orruz bezela, txerren zuen etsaya.

E-B: deabrua, zuen arerioa, *leioia* orroka lez.

Pantera edo Leopardo, eta Oso, eta León (Agerpena 13, 2)

La fiera que vi parecía una *pantera* (*leopardo*) con patas de *oso* y boca de *león*.

Lei: Eta nik ikussi ukan nuen bestiak *leoparta* irudi zuen, eta haren oinak ziraden *hartzarenak* bezalako: eta haren ahoa *lehoinaren* ahoa bezalako.

Duv: Eta ikhusi nuen basabereak, iduri zuen *lehoinabarra*; eta haren hatzak *hartzarenak* bezalakoak ziren, eta haren ahoa *lehoinarena* bezalakoak.

Ol: Nekuzan bidutzia *leoi nabarra* bezela zan; aren oñak artzarenak bezela, eta aoa *leoyarena* bezela.

E-B: Ikusi neban aberea *pantearearen* antzekoa zan, eta aren oñak *artzarenaren* antzekoak, eta aren agoa *leoiarenaren* antzekoa.

Zorra (Mateo 8, 20)

Las *zorras* tienen guaridas.

Lei: Azeriek *zulhoak* zitié.

Duv. Hazeriek ba-dituzte zilhoak.

Ol: Azeriek *zuloak* ba-dituzte.

E-B: Azeriak euren *gordelekuak* daukez.

Lobo (Mateo 7, 15)

pero por dentro son *lobos* rapaces.

Lei: baina barnean *otso* harrapari dirade.

Duv: barnean *otso* harrapariak dire ordean.

Ol: barnetik *otso* zakarrak dirala.

E-B: baiña barrutik *otso-lapurrak* dira.

Ganado (jateko) (Joan 4, 12)

y de él bebieron él y sus hijos y sus *ganados*.

Lei: eta berak hunetarik edan baitu, eta haren haurrék, eta haren *abrék*.

Duv.: berak ere huntarik edan izan baitu, eta haren umeek eta haren *aziendek* ere.

Ol: ta arek eta aren seme ta abereak (= abereek) ontatik edaten zuten.

E-B: eta bertotik edan eben berak eta bere semeak eta bere abereak.

Ganado - Cabalgadura (Agerpena 18, 13)

(ni) *bestias de carga*, ovejas, caballos y carros.

Lei: *behor* eta ardi, eta zaldi, eta karriot.

Duv: *Kargako abereak*, eta ardiak, eta zamariak, eta orga-lasterrak.

Ol. ez *zamari*, giberri ta gurdirik.

E-B: ez *zamari*, ardi, zaldi ta burdirik.

KEREXETA'K

EUSKAL ANTZERTI (TEATRO) LAN ERREZEN SARIKETA

ASMOA

Errietan, lagun gitxigaz teatroa egiten asi eta zaletasuna sortzeko, eta batez ere, lan egin nai dabenen gaitasuna ezagutzeko, lanak sortzea.

Lanak euskeraz egiñak, sortuak, ez beste izkuntzetatik itzuliak. Sariketaren asmoa beteteko, lanen egokitasuna kontuan eukiko da.

Lanak bialtzeko epea, Azilla'ren 30'n amaituko da.

Egilleak lan bakoitzaren iru kopia bialdu beariko ditue, lema bategaz, eta beste karta-azal baten barruan euren izen eta zuzenbidea.

Saritzen ez diran lanak, egilleak eskatu ezkeru, biurtuko dira.

Lan sarituen egille jaubetasuna bakoitzarena izango da. Alaz eta Kultur Etxeak bere askatasuna euki-ko dau lanak argitaratu edo kopietan zabaltzeko.

Epai maia antzerti zale ezagunak osotuko dabe, eta sasoiz iragarriko da euren epaia.

SARIAK

Bakarrizketak (Monologoak): Bost sari bardin, bakoitza 20.000 pesetako.

Alkar-izketak: Bost sari bardin, bakoitza 20.000 pesetako.

Antzerki-laburrak: Zortzi sari bardin, bakoitza 25.000 pesetako.

(Antzerki laburren sail onetan, lau lagunuen kontura joango da lana, nai eta dantza, erromeri, erritar eta abar sartzea azke izan.)

Lanak sari bardiña eukitean, saritutakoak alfabetako errezkadan agertuko dira, zein lenen, onen edo egokien dan agertu barik.

Lanak bialtzeko zuzenbidea: Kultura-Etxea - Artabide, 13 - ONDARROA.

(Antzerki sariketa)

“EL BATUA” EZ DA EUSKERA (II) ERITXI BATZUK

“Batua, Sabin’ek zuzendu ta indartutako ERRI-EUSKERA’ren aurka jokatzeagaitik bakarrik sortua izan zan”.

LEKUONA’TAR IMANOL
(Euskaltzaindia’ren Lendakari-izana)

“Gauza bat da batasuna egitea ta bestea euskera zapaldu-naia. Zergaitik gure izkuntzak dauzan itzak baztertu naia? Zergaitik **egizko batasuna** egin barrean, erdera euskereagaz alkartu-naia? Egiz, ezin dot ulertu.

Betiko euskerea nai dogu: orain-arte entzun doguna, erriko izkuntza jatorra.

ESKAURIATZA’TAR XABIER

* * *

“Baiña, betoz orain indarraren aldeko lege-jartzailleak, erriak darabiltzan euskal-izkerak naspillatzera ta biurriketzera, erriketzera, irriak bereak ez ditun bideetatik bultzaka joan-arazi naiean.

Eta ni bildur, ez bataren ez bestearen eztan izkuntza nabar, pisu ta elkor orrek ez ote ditun gogoan joko euskaldunik jatorrenak, euskal-liburu ta paper guziak erabat zapuztutzeraiño”.

MOKOROA’TAR JUXTO MARI

* * *

“Lotsagarria zelan ikustirratian eta euskal-irritati batzuetan euskerearen kaltegarri direan amaikatxu aditz-erabilkera ta enpaidu aizeratzen dira.

Erri-euskera jatorra, benetakoa, bai gipuzkerea ta bai bizkaiera, ondatzen diarduela uste daiteke.

Mingarria dogu, ba, izan bere erri-euskerea bazterturik “el batua” lorrin orreri indar egiten ekin bearra asi agintari, “irakasle” ta euskeraren ezkutuak ikasteko gai ez direan euskal-sen bagako geienak. Oba leuke lorrinkeri kaltegarriak itxi ta euren alderdietako euskera jatorra ondo-ondo ikasi ta erabilten aleginduko balira. Bai, orixe’.

AURRE-APRAIZ’TAR BALENDIN “AURRAITZ”

* * *

“El batua” ori ongi datorke, agian, erderaz pensatzen dutenentzat. Gu, amaren magalean euskera ikasi dogunok, “el batua” orren itzen bearrean ez gera arkitzen, gogora ere ez ba’ zaigu etortzen. Arazo ori ez bai-degu nabaitzen ikasi degun izkera jatorrean”.

URRUZOLA’TAR ESTANIS “UXOLA”

* * *

“Bizkaitarra naz, eta amagandik euskeraz ikasia. Orregaitik, buru-barruan daroadan berbeta nagusia BIZKAIEREA da.


Gaur egun, Euskalki guztietatik bi daukaguz zabalduenak: BIZKAIERA ta GIPUZKERA. Biok erdi-bardin. Orti-xek atara bear geunke guztiontzat EUSKERA bat, LEGEZKO EUSKERA aukeratzekotan”.

AURRE’TAR ANTON

* * *

(Aukeratzaille: Bilbao’tar Jon E.)

AURRE-APREIZ’TAR BALENDIN “AURRAITZ”



Colón de Larreategui, 14 - 2.º dcha. BILBAO-1

Bizkaia'k bere Kutxa dauko



CAJA DE AHORROS
VIZCAINA



BIZKAIKO
AURREZKI KUTXA

Laguntza aundia